

Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)

KOLDO ARTOLA *

I

Nafarroako Diputazioarenpeko «Príncipe de Viana» Erakundeak 1976.ean argitara eman zuen FONTES 23an, eta «Acentuación alto-navarra» izenburuaz, orain omentzen ari garen Koldo Mitxelena irakasleak (G.B.) artikulu mamitsu bat eman zigun ezagutzera ¹.

Hasieratik beretik «El tema del acento vasco, donde el singular 'el acento' encubre una multiplicidad de sistemas acentuales, es probablemente el más delicado que existe en nuestra fonología» bezalako gaia, artean hain gutxitan ukitua, mahai gainean ipintzen du, berari buruzko irazkin interesgarri bezain sakonak eskainiz.

Alabaina ez zen beti mugatu lanaren izenburuak aditzera ematen duen euskalkiari, maiz aipatzen baitzizkigun beste zenbait euskalkitatik ateratako adibideak, besteak beste Oñatiko bizkaiera, iparraldeko goi-nafarreratzat jotzen zuen Erreterria bere sorterrikoa, zaraitzuera, erronkaria eta zuberera... gutxienez.

Oso interesgarria iruditu zaigu, orobat, azentuazio-egiteez esaten duena, ikertzaileek edo, bere kasuan, biltzaile soilek bete beharko lituzketen baldintzez: «Sólo podrá llegarse a conclusiones positivas o negativas (y a estas últimas, siempre con un amplio margen de duda) si el observador ha adquirido bastante familiaridad con el habla local que estudia, si ha preparado un cuestionario amplio y complejo, si emplea informadores capaces de llegar sin violencia a una pronunciación un tanto cuidada, si utilizando grabaciones puede oír una y otra vez las respuestas, etcétera, suponiendo

* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

1. Lan hau Erreterriako Udalak 1989. urtean eraturiko «KOLDO MITXELENA, I Lehiaketa»rako aurkeztua izan zen, epai-mahaikoen aldetik «lanaren maila altua» estimatua izan zelarik.

siempre al observador dotado de un oído bueno o al menos bien entrenado. Y todo esto no son más que condiciones necesarias, que no tienen por qué ser, por añadidura, suficientes». Guzzi honekin, printzipioz, ados egonik ere, esan egin nahi dugu, eta berehala gainera, honen ondoren aurkeztuko dugun materiala euskarak hegoaldeetik ezagutzen duen muga-mugan bildua izan denez gero, informatzaileetarikoz batzuk, urte luzetan euskara mintzatu gabe egon izanaren ondorio, doi-doi baizik ez zutela erantzuten. Hala eta guztiz, beren herrietako euskararen azken lekukotasunak izatean, ez dugu zalantzarik izan haiei inkestatxoak egin-eta, emaitzak honera ekartzen, beren zalantzak, gabeziak eta guzti. Geroxeago aurkeztuko diren koadro batzutako informatzailerik «ahulenak», hartara, Olaitz (Olaibar), Ilurdotz (hego-Esteribar), Espotz (Artzibar-Urrobi) eta Azparren (Artzibar-Irati) herrietakoak ziren, lan hau prestatzen ari garen 1989.eko udan hilik baitaude, gainerako guztiek Mitxelenak eskatu baldintzak betetzen dituztela –edo, kasu batzutan, zituztela– esan badezakegu ere.

Mitxelenak ez zuen gogoko, bestalde, arazo honi entonazioaz kalifikatzea, hobe iruditzen baitzitzaion, nonbait, «hechos de acentuación»ez mintzatzea; guk zera honi, beraz, «azentuazio-egiteak» deituko diogu.

Eta hariari eutsiz, aipaturiko bere lanaren 4. puntuan (2. esaldia) zera zioen: «Sigo pensando que lo que allí decía» –Mitxelena hark berak idatzi beste artikulua guztiz interesgarri bati zuzentzen zaio: «A Note on Old Labourdin Accentuation», Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo' 6 (1972)– «de este tipo acentual es correcto, aunque sin duda haría falta apoyarse sobre un material más abundante y variado, e introducir un número considerable de correcciones. Desde un punto de vista puramente impresionista, el acento recuerda el castellano: no hay mayor dificultad en distinguir sílabas tónicas de átonas ni, por consiguiente, de determinar dónde carga exactamente el acento. Para nosotros, resulta más bien extraño: por decirlo de una manera más gráfica que exacta, cuando oímos hablar así, nos parece que la letra vasca lleva música romance».

La guzti honekin ados egonik ere, zilegi bekigu eragozpentxoren bat agertzen ausartzea, zeren, batzutan bai, zailtasunik badela iruditzen baitzaigu, *orai*, *baña/bañe*, *atzo*... bezalako hitzekin, esaterako, azentua markatzerakoan: *órai*, *orái* ala *órái*?; *báña*, *bañá* ala *báñá*?; *átzo* (gehienetan), *atzó* ala *átzó*? Ez zaigu, beraz, azentua non edo zeren gainean doan beti hain garbiki azaltzen, gure uste apalean behintzat. Alabaina, arrazoi osoa du Mitxelenak «aunque sin duda haría falta apoyarse sobre un material más abundante y variado...» esatean, zeren, bere lan horretan, eta dioenaren eredu gisa, badirudi Elkanoko Joaquín de Lizarraga idazle oparoaren obratik bakarrik, ez besterenik, ateratako adibide soilak erabiltzen dituela, euskalki guzti honengan zertzen diren azentuazio-egiteez ematen zaigun informazioa, honela, motz samarra geratuz.

«Dentro del nombre singular» –jarraitzen zuen Mitxelenak– «son típicas acentuaciones como *abrátza* 'rico', *egúne* 'día', *árrie* 'piedra', *sémea* 'hijo', *láñoa* 'niebla', *órdue* 'hora', etcétera, donde en las traducciones he suprimido por brevedad el artículo. En otras palabras, el acento va en la

penúltima sílaba del tema determinado, ya que *i*, *e*, *o*, *u* delante del artículo en los cuatro últimos ejemplos son *no silábicos*, con lo que *árrie*, etc., cuentan solamente dos sílabas. El acento del tema nudo se gobierna por el del tema determinado, de manera que tenemos *abráts*, *egün*, de una parte, y *árri*, *órdu*, etc., de la otra. Para el plural no tengo datos suficientes».

Puntu honetara iritsirik, eta aurrera egin baino lehen, azken hamar urteetan bilduz joan garen apunte batzu ahalik ongien zerrendaturik agertaraziko ditugu, azentu-marka non entzun uste izan dugun adieraziz. Zenbait koadrotan kokatu ditugun hitzak beren bukaerari begira izan dira bereziki aukeraturik, artikulua hartzean nolako portaera izan duten ikusteko, gauza jakina baita zenbait lekutan mugatugabeko hitzaren azken silabak *i* edo *u* bat izatean, *a* artikulua hartzean berau *e* batetan isteko duten lehia.

Prestatu ditugun koadrotxoak, bada, mapari begira-eta, ezkerretik (Arakil) eskuinalderantz (Artzibar) taxutu ditugu, Esteribarko herriak ditugun *Inbuluzketa* eta *Ilurdotz* berezi badira ere, arazoa zera izanik: Louis-Lucien Bonaparte printzeak ipar-Esteribar eta Erroibarko hizkerak zaku berean sartu zituen –Erroko barietatea–, eta hemen aurkeztu herrietarik bat, *Urnitz*a, –baserri bat besterik ez, kasu honetan, gainera– Erroibarkoa izatean, egokia iruditu zaigu era honetan –*Inbuluzketarekin* batera, alegia– agertzea. *Ilurdotz* herria, aldiz, Bonapartek hego-Esteribarkin sailkatzean Artzibarko hizkerarekin lotu zuenez, egokia iruditu zaigu haran edo ibar honetako herriekin batera aurkeztea. Herrien zerrenda osoa, beraz, honela osatzen da:

Ithabar eta *Urritzola* (Arakil), Bonaparteren sailkapenaren arabera OL-TZako barietatearen barrukoa; *Larunbe* (Guli-Itza) eta *Beurburu* eta *Usi* (Txulapain) –azken bi hauetatik lehena Ergoiena aldean eta Elbarrena deritzan inguruan bestea– guzti hauek Bonapartek GULINA deiturapean sailkatuak eta, aurreneko guztiekin batera, printzeak «ultrapamplonés»tzat jo zuen azpieuskalkiaren eremukoak.

Ondoren *Anotz* (Ezkaarte), *Ziaurritz* (Odieta) eta *Olaitz* herriak ditugu, hirurak OLAIBAR deiturapean sailkatuak; *Inbuluzketa* (ipar-Esteribar) eta *Urnitz*a (Erroibar) –lehen emaniko arrazoiagatik elkarren ondoan agertzen ditugunak– ERRO deiturapean sailkatuak, eta, amaitzeko, *Ilurdotz* (hego-Esteribar), printzeak, *Arriasgoiti*ekin batera, *Artzibarko* hizkerarekin sailkatu zuena, haran honetakoak diren *Espotz* eta *Arrieta* (bi hauek Urrobi ibaiaren ingurukoak), eta *Azparren* (Irati ibaiaren aldekoa); azken lau hauek ARTZE izenarenpean sailkatu zituen printzeak, hizkera edo barietate bezala, hizkera hauxe, arestian aipatu OLAIBAR eta ERROrekin batera, «cispamplonés» deiturapeko azpieuskalkitzat jo zuelarik.

Guzti hau zehazturik utzi ondoren –hori izan da, behintzat, gure asmoa–, ikus dezagun aipatu koadrotxook zernolako informazioa ematen duten, informatzaileek beren erantzunak artikulua erantsita emateko duten lehia guztiz nabaria dela ongi kontutan harturik, noski ².

2. Koadrootako galderak ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailak hark berak argitaraturiko «Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa» (EAEL) deritzan lanerako –I lib.

	<i>a</i> bukaera duten euskal hitz arruntak:				
	aita	alaba	anaia	ahizpa	iloba (1)
Ihabar	áite	alabá	anaié	áizpe	illéba
Urritzola	áita (2)	alába	anáia	aizpa	--
Larunbe	aité	alába	anáye	áizpe	illéba
Beorburu	áite	alába	anáye	áizpe	illéba
Usi	aite	alaba	anáye	áizpe	illéba
Anotz	áite	alába	anáie	áizpe	illéba
Ziaurritz	aite	alaba	anáie	áizpe	illéba
Olaitz	áite	alába	anáye?	arréba?	--
Inbuluzketa	aíte	alába	anáia	áizpe	illéba
Urnitza	áite	alába	anáea	áizpe	lléba
Ilurdotz	áite	alába	anáia	arréba	elléba
Espotz	áita	alába	anáea	áizpa	elléba
Arrieta	aitá	alába	anáia	aizpa	elléba
Azparren	áita	alába	anáya	--	--

- (1) gaztelerazko «sobrino» da.
 (2) informatzaileak hitz-bukaera hauek «zuzentzen» ditu, batzutan, «dotoreagoak» edo gelditzen direlakoan. Elkarrizketa arruntean, al-diz, *i* eta *u* bokaleen ondoko *a* guztiak *e* ahoskatzen ditu.

	<i>a</i> bukaera duten euskal hitz arruntak:						
	baba	gazta	soka	zura	atorra	aizkora	denbora
Ihabar	bába	gáztá	sóka	zúre (1)	átorra	áizkorá	dénbora
Urritzola	baba	gáztá	sóka	zúre (2)	átorrá	áizkora	denbóra
Larunbe	bába	--	sóka	e(g)úrre	atórra	aizkóra	denbóa
Beorburu	bába	gáztá	sóka	zúre	atórra	aizkóra	denbóra
Usi	baba	gáztá	kuerda	zúre	atórra	aizkóra	denbóra
Anotz	bába	gáztá	sóka	zúre	atórra	aizkóra	denbóra
Ziaurritz	bába	gáztá	soka	zúre	atorra	aizkóra	denbóra
Olaitz	bába	gazta	soka	e(g)úrre	atorra	aizkóra	denbóra
Inbuluzketa	bába	gáztá	sóka	zúre	atórra	áizkora	denbóra
Urnitza	bába	gáztá	sóka	zúre	atórra	aizkóra	denbóra
Ilurdotz	bába	gáztá	sóka	zúre (3)	atórra	aizkóra	denbóra
Espotz	bába	gáztá	sóka	zúla	atórra	aizkóra	denbóra
Arrieta	bába	gáztá	kórda	zúla	atórra	ai(t)zkóra	denbóra
Azparren	--	gáztá	ramála	egúrre	atórra	aizkóra	denbóra

- (1) *zúrea* ere bai.
 (2) *zúre bat* ere bai.
 (3) *zúria* ere bai.
 Larunbe, Olaitz eta Azparrenko informatzaileek «(la) leña» dela diote.

(1983); II lib. (1990)– erabili zituen, MARCEL COHENEN honako galdera-sorta baliatuz: QUESTIONNAIRE LINGUISTIQUE – Publications de la Commission d'Enquête Linguistique, 1950.

	<i>e</i> bukaera duten euskal hitz arruntak:				
	ke	lore	seme	artile	suge
Ihabar	kéa	pútxié (1)	sémea	àrtillé ?	súbie (4)
Urritzola	kéa	lórea	sémea	íllea	súbea
Larunbe	ékia	lórea	sémea	ílla	súbia
Beorburu	ékea	lória	sémea	--	súbia
Usi	ékia	flóre	sémia	íll(e)a	súbia
Anotz	ékia	flórea	sémia	ílla	súbia
Ziaurritz	ékia	lórea	sémia	ílla	súbia
Olaitz	kéa	lórea	sémia	--	súbe
Inbuluzketa	kéa	lórea	sémia	élla	súbia
Urnitza	kéa	lórëa (2)	sémea	éllea	súge, súgia
Ilurdotz	kéa	loréa (3)	sémëa	élla	súbe, súbia
Espotz	kéa	lórea	sémea	élea	súga ?
Arrieta	kéa	lórea	sémea	éllea	subéa
Azparren	kéa	lória ?	sémia	élia, éllia ?	--

(1) gaztelerazko «margarita» omen da, mugatua: putxi/putxie.

(2) *ë* hori erdi *e* erdi *i* iruditu zaigu. Diptongoa suertatzen den guzti hauetan horrela izango da, gutxi-gorabehera, ohiki ezer markatzen ez badugu ere.

(3) *lóre bat* ere bai.

(4) *subiá* ere bai.

	<i>e</i> bukaera duten euskal hitz arruntak:			
	ohe	esne	arraultze	adiskide
Ihabar	guátzea	esénea	àrrotziá	áixkideá
Urritzola	guátzea	ésénea	arróltzea	aixkídea
Larunbe	guátzea	esénia	arróltzea	aixkídia
Beorburu	guátzea	esénia	arrótzea	aiskídea
Usi	goátzea	ésnea	arrótzia	aixkídia
Anotz	guátzea	ésnia	arrótzia	aixkídia
Ziaurritz	goátzea	ésnia	arrótzia	aixkídia
Olaitz	goátzea	esnëa	arrótzea	--
Inbuluzketa	guátzia	ésnea	arrótzia	aixkídia
Urnitza	guátzea	ésnia	arrótzea	aixkídea
Ilurdotz	guátzia	ésnea	arrótzia	aixkídea
Espotz	guátzea	ésnia	arrótzea	aixkídie
Arrieta	guátzea	esnëa	arróltzëa	aixkídia
Azparren	goátzea	éznia, ésnia	arrótze, arrótzea	--

	<i>i</i> bukaera duten euskal hitz arruntak:						
	mihi	behi	harri	gari	zubi	zaldi	zorri
Ihabar	mié	béiyé	árrie	gárie	zúbié	záldie	zorrie
Urritzola	míngaña	béye	árríye	gáriye	zúbie	záldie	zórrie
Larunbe	mingáñe	béie	árrie	gárie	zúbie	záldie	zorrie
Beorburu	mía	béie	arríe	garíe	zúbie	záldie (3)	zorrie
Usi	míe	béie	arríe	garíe (2)	zúbie	záldie	zórrie
Anotz	míe	béie	arríe	garíe	zubíe	zaldíe	zorrie
Ziaurritz	míe	béie	arríe	garíe	zubíe	zaldíe	zorrie
Olaitz	míe	béie	árri, arríe	garíe	zubíe	záldie	zórrie
Inbuluzketa	míe	béi(y)a	arríe	garíe	zúbie	záldie	zorrie
Urnitza	míe	béa	árrie	gárie	zúbie	záldie	zórrie
Ilurdotz	míe	béa (1)	arríe	garíe	zúbie	záldie	zorrie
Espotz	mía	béa	árria	garía	zuba	záldia	zorrie
Arrieta	mía	béa	arria	garía	zubía	zamária	zorria
Azparren	mía	béa	árria	garía	--	zamária	zórri

(1) *béi bat* ere bai.

(2) *gárie* ere bai, eta gauza bera Olaitz eta Ilurdotzen ere. Espotz, Arrieta eta Azparrenen *garía* ere bai.

(3) *záldie* ere bai, eta gauza bera Ilurdotzen ere. Arrietan *záldia* ere bai.

	<i>i</i> bukaera duten euskal hitz arruntak:					
	euli	euri	ilargi	izerdi	ipurdi	igitai
Ihabar	aúlié	áurié	illérgie	izérdie	ipúrdie	egitáie
Urritzola	éulíe	éuriye	illárgiye	izárdie	ipúrdie	égitaye
Larunbe	úlie	eúrie	illérgie	izérdie	ipúrdie	eitégie
Beorburu	úlie	eúrie	illérgie	izérgie	ipúrdie	egitégie
Usi	úlie	egúrie	illérgie	izérdie	ipúrdie	igitégi
Anotz	ulíe	euríe	illérgie	izérdie	ipúrdie	igitegie
Ziaurritz	ulíe	egúrie	illérgie	izérdie	ipúrdie	egitáie
Olaitz	úlie	eúri (2)	ilérgie	izérdittu (3)	ipúrdi	--
Inbuluzketa	úlie	eúrie	ilárgie	izárdie	ipúrdie	igitéa
Urnitza	úlie	eúrie	ilérgie	izérdie	ipúrdie	igitéa
Ilurdotz	ulíe	eúrie	ilérgie	izérdie	ipúrdie	igitéa
Espotz	ulíe	éuria	ilérgie	izérdie	ipúrdia	itáia
Arrieta	úlia (1)	eúri	ilárgia	izérdia	ipúrdia	itáia
Azparren	áulia ?	áuria	ilárria ?	izárdia	ipúrdia	--

(1) *úlia* ere bai.

(2) *(e)urie* ere bai.

(3) galdera ez zuen ongi ulertu, antza denez.

	o bukaera duten euskal hitz arruntak:				
	ardo	asto	olo	oilo	olio
Ihabar	árduá	ástoa	óloá	ólloá	óliguá
Urritzola	árdua	ástoa	óloa	ólloa	ólíoa
Larunbe	árdoa	ástoa	óloa	ollóa	olíoa
Beorburu	ardúa	astúa	olóa	óllua	olíua
Usi	árdoa	ástua	óloa	ólloa	olíoa
Anotz	ardúa	ástoa	óloa	ólloa	olí(y)uá
Ziaurritz	árdua	ástoa	óloa	ólloa	olíoa
Olaitz	ardúa	astóa	oloa	ólloa	olí(y)oa
Inbuluzketa	ardo	ástoa	óloa	ólloa	olíoa
Urnitza	árdoa	ástoa	óloa	ólloa	olíoa
Ilurdotz	ardóa	ástóa	óloa	ollóa	olíoa
Espotz	ardóa	astóa	óloa	ólloa	olíoa
Arrieta	ardóa	ástoa	óloa	ólloa	olíoa
Azparren	árdua	ástoa	óloa	óllua	olíoa

	o bukaera duten euskal hitz arruntak:				
	lepo	hosto	mando	zil(ko)	txitxirio
Ihabar	lépoa	óstoa	mándoa	txilbórra	txitxiróa
Urritzola	lépoa	óstoa	mándoa	zílkoa	txitxírioa
Larunbe	lépua	óstoa	mándoa	zilbórra ?	txitxírioa
Beorburu	lépöa (1)	óstua	mandóa	txílkoa	txitxírioa
Usi	lépoa	óstoa	mándoa	txílkoa	txitxírioa
Anotz	lépöa	óstöa	mándua	txílkua	txitxírioa
Ziaurritz	lépoa	óstoa	mándoa	zílkoa	txitxírioa
Olaitz	lépoa	óstoa	manduá ?	txílko	txitxírioa
Inbuluzketa	lépoa	óstoa	mándoa	xílkua	txitxírioa
Urnitza	lépöa	óstoa	mándöa	zílkoa	txitxírioa
Ilurdotz	lépua	ostóa	mándoa	zílkoa (2)	txitxírioa
Espotz	lépua	óstoa	mándoa	--	txitxírioa
Arrieta	lépoa	ostóa	mándoa	xílkoa	txitxírioa
Azparren	lépoa	óstöa	mándoa	--	txitxíríia

- (1) ö hori erdi o erdi u iruditu zaigu. Diptongoa suartatzen den guzti hauetan horrela izango da, gutxi-gorabehera, ohiki ezer markatzen ez badugu ere.
- (2) *txílkua* ere bai.

	u bukaera duten euskal hitz arruntak:				
	su	sagu	larru	listu	mailu
Ihabar	súe	ságué	lárrué	líxtúe (1)	mallúkié
Urritzola	súe	ságue	lárrue	lístue	mállue
Larunbe	súe	ságue	lárrue	líxtue	mallúke
Beorburu	súe	sagúe	larrúe	lixtúe	mallúkoa
Usi	súe	ságue	larrúe	líxtue	mallúkua
Anotz	súe	ságue	larrúe	líxtue	mallúkua
Ziaurritz	súe	sagúe	larrúe	listúe	mallúkoa
Olaitz	súe	sagúe	--	listúe	mallue
Inbuluzketa	súe	ságue	lárrue	líxtue	mállue
Urnitza	súe	xágue	lárrue	lístue	mállue
Ilurdotz	súbe	ságue	lárrue	lízttue	mállu aundie
Espotz	súa	ságua	lárrua	--	pikamállue
Arrieta	súa	ságua	larrúa	lístöa	mállua
Azparren	súa	--	lárrúa	lízttúa	martilloa

(1) Ihabarko bigarren informatzaile batek: *lístu*. Arrietakoak *listúa* ere bai eman du.

	pluraleko artikulua agertzen diren euskal hitz batzu					
	hortzak	hesteak	semeak	zapatak	izarrak	hatzazalak
Ihabar	or(t)zák	éstiak	sémeak	zápeták	izárrak	azázkalák
Urritzola	órtzak	ésteak	semeak	zapétak	izárrak	azázkalak
Larunbe	órtzak	értzeak	áurrek	zapéta (2)	izérrak	azazkálak
Beorburu	órtzak	ésteak	semealábak	zapétak	izárrak	azazkálak
Usi	órtzak	éstxiak	sémiak	zapétak	izérrak	azázkalak
Anotz	órtzak	ér(s)ziak	sémiak	zapétak	izérrak	azazkálak
Ziaurritz	órtzak	értzeak	úmiak	zapéta	izérrak	azázkalak
Olaitz	órtzak	értziak	sémëak	zapétak	--	azazkálak
Inbuluzketa	órtzak	erzéak	úmiak	zapétak	izárrak	azazkálak
Urnitza	órtzak	értzeak	semealábak	zapétak	izérrak	azazkálak
Ilurdotz	órtzak	értziak	sémeak	zapétak	izérrak	azazkálak
Espotz	órtzak	értzeak	úmeak	zapétak	izárrak	azazkálak
Arrieta	órtzak	értzeak	seméak (1)	zapétak	izárrak	azázkálak
Azparren	órtzak	értzeak	semealábak	zapéta	--	atzazkálak

(1) singularrean *sémea* eman du.

(2) hiru informatzailek singularrean eman dute.

	<i>n</i> bukaerako euskal hitz arruntak:				
	buztan	zezen	buztín	gizon	lagun
Ihabar	búzténá	zézená	bùztiñé	gizóna	láguné
Urritzola	buxténa	zezéna	búztiñe	gizona	laúna
Larunbe	buzténa	--	buztín	gizóna	lagúne
Beorburu	buztána	zezéna	buztiñe	gizóna	lagúne
Usi	puzténa	zezéna	--	gizóna	lagúne
Anotz	puzténa	zezéna	buztiñe	gizóna	lagúne
Ziaurritz	buzténa	zezéna	lur gáixtoa (!)	gizóna	--
Olaitz	puzténa	--	buztín	gizóna	lagúne
Inbuluzketa	puzténa	zezéna	buztíne	gizóna	laúne
Urnitza	isétsa	zezéna	buztíne	gizóna	laúne
Ilurdotz	puzténa	zezéna (2)	buztín	gizóna	laune
Espotz	buztána	zezéna	bustíne	gizóna	--
Arrieta	búztana (1)	zezéna	buztína	gizóna	láuna
Azparren	búztana	zezéna ?	buztína	gizóna	--

(1) *buztána* ere bai.

(2) *zezén bat* ere bai.

	<i>n</i> bukaerako euskal hitz arruntak:				
	irin	zurgin	zain (1)	ezpain	belaun
Ihabar	íriñé	zúrgiñé	zainkóndoa	ezpéne (3)	beláune
Urritzola	írine	zurgíñe	záñek (2)	ezpáña (4)	beláuna
Larunbe	iríñe	zurgíñe	záñe	ezpáñe	beláune
Beorburu	iríñe	zurgíñe	záñe	ezpáñe	beláune
Usi	iríne	zurgíñe	záñe	ezpáñe	beláune
Anotz	iríñe	zurgíñe	záñe	ezpáñe	beláune
Ziaurritz	iríñe	zurgíñe	záñe	ezpáñe	beláune
Olaitz	iríne	zurgíñe	ondotikiñe	ezpáñe	--
Inbuluzketa	iríne	zurgíne	arráize	ezpáña	beláune
Urnitza	iríne	zurgíne	záña	ezpáña	beláune
Ilurdotz	iríne	zurgíne	azáña	ezpáña (5)	beláune
Espotz	irína	zurgína	záña	ezpáña	beláuna
Arrieta	irína	zurgína	záña	ezpáña (6)	beláuna
Azparren	irína	surgína ?	--	aizpáin ?	beláuna

(1) gaztelerazko «raíz» da.

(2) pluralean eman du, ikusten denez.

(3) *ezpéin bat* ere bai.

(4) *ezpáñek* eman du ere bai, pluralean.

(5) *ezpáin aundie* ere bai.

(6) *ezpáin* ere bai, artikulurik gabe.

	<i>l</i> bukaerako euskal hitz arruntak:			
	azal	gibel (1)	mutil (1)	odol
Ihabar	ázalá	gíbelá	morroyé	ódolá
Urritzola	azála	gibéla	morróia	odola
Larunbe	azála	gibéla	mutílle	odóla
Beorburu	azála	gibéla	mutílle	odóla
Usi	azála	gibéla	mutílle	odóla
Anotz	azála	gibéla	mutílle	odóla
Ziaurritz	azála	gibéla	mutílle	odóla
Olaitz	azazkála (3)	gibela	mutílle	odóla
Inbuluzketa	azála	gibéla	mutíle	odóla
Urnitza	azála	gibéla	mutíle	odóla
Ilurdotz	azála	gibéla	mutíle	odóla
Espotz	azála	gibéla ?	mutíle	odóla
Arrieta	azála	gibéla	mutíla	odóla
Azparren	azála	gibéla	mutíla	odóla

(1) gaztelerazko «hígado» da, kasu honetan.

(2) gaztelerazko «criado» da, kasu honetan.

(3) gaztelerazko «(la) uña» ulertu bide du.

	<i>r</i> bukaerako euskal hitz arruntak:					
	belar	ilar	oilarr	garagar	hezur	elur
Ihabar	bélarra	illarra	ollárra	garagárra	ézurré	elurre
Urritzola	bélarra	íllarra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Larunbe	belárra	illérra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Beorburu	belárra	illérra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Usi	belárra	illérra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Anotz	belárra	illérra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Ziaurritz	belárra	illárra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Olaitz	belárra	--	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Inbuluzketa	belárra	ilérra	ollárra	garagárra	izúrre	elúrre
Urnitza	belárra	ilérra	ollárra	gara(g)árra	ezúrre	elúrre
Ilurdotz	belárra	ilérra	ollárra	garárra	ezúrre	elúrre
Espotz	belárra	ilárra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Arrieta	belárra	ilárra	ollárra	garagárra	ezúrre	elúrre
Azparren	belárra	ilárra	ollárra	--	ezúrre	elúrre

	tz, ts eta z bukaerako euskal hitz arruntak:					
	orratz	ikatz	arotz	ahuntz	ortots(1)	apaiz
Ihabar	orrátzá	íkétzá	agotzá ?	aúntzé	ortó(t)sa	apéza
Urritzola	orrátzisteá	iketza	aótza	auntza	óstotsa	ápeza
Larunbe	orrátza	ikétza	--	aúntze	ortótsa ?	apéza
Beorburu	orrátza	ikétza	arótza	aúntze	ortótsa	apéza
Usi	orrátza	ikétza	arótza ?	aúntze	ortótsa	apéza
Anotz	orrátza	ikétza	arótza	aúntze	ortótsa	apéza
Ziaurritz	orrátza	ikétza	arótza	aúntze	ortótsa	apéza
Olaitz	orrátza	ikétza	arótza	áuntze	barrúnbie	apéza
Inbuluzketa	orratzústia	ikétza	arótza	aúntze	ortótsa	apéza
Urnitza	orrátze (2)	ikétza	arótza	aúntze	ortótsa	apéza
Ilurdotz	orrátza	ikétza	arótza	aúntze	ortótsa	apéza
Espotz	orrátza	ikátza (3)	arótza	áuntza	ortótsa	apéza
Arrieta	orrátz txípiá	ikátzea	arótza	aúntza	ortó(t)sa	apéza
Azparren	orrátza	ikátza	arótza	aúntza (4)	ortótsa	apéza

(1) gaztelerazko «(el) trueno» da.

(2) *orrátzia* ere bai.

(3) *ikétza* ere bai.

(4) *áuntza* ere bai. Zail da, batzutan, azentu hau non doan nabaritzea.

	bestelako hitz batzu:					
	zikin	hurbil	bar(re)nean	kanpoan	gehiago	gutxiago
Ihabar	zíkiñe	úrbil	bárna	kánpoan	géyagó	gutxíau
Urritzola	zíkiñe	bértan	bárnen	kanpoan	geyáo	gútxigo
Larunbe	zíkiñe	óndoan	bárnen	kanpóan	geígo	gutxígo
Beorburu	zíkiñe	úrbil	bárnean	kánpoan	geígo (1)	gutiágo
Usi	zikíne	urbíl	bárna	kánpoan	geyágo	gutiágo
Anotz	zíkiñe	urbíl	bárnian	kánpoan	geyágo	gútiago
Ziaurritz	zíkin	urbíl	bárnian	kánpoan	géiao	gúttiago
Olaitz	zíkiñe	urbíl	--	kanpo ?	geyago	guttiágo
Inbuluzketa	zikíne	--	bárnian	kánpoan	yágo	gútiago
Urnitza	zikíne	urbíl	bárnean	kánpoan	yágo	gutiégo
Ilurdotz	zikíne	urbíl	bárnian	kánpoan	yágo	gútiégo
Espotz	zikíne	urbíl	bárnia	kánpoan	yágo	gutiágo
Arrieta	zíkiná	urbíl	bàrneán	kànpoán	yá(g)o	gútiago
Azparren	zikíne	--	bárnian	kánpoan	yágo (2)	gutiágo

(1) *geyáo* ere bai.

(2) *yáo* ere bai.

	aditz-joko batzu:			
	bakarrrik dago	(ba)doa	joango dira	joan daitezela
Ihabar	bákarrik daó	daié	joánko deé	dazíle
Urritzola	bakárrrik da(g)ó	bádayé	joango dire (5)	dázitela
Larunbe	bakárri'táo	badáie	joáin deé	dazíle
Beorburu	bakárri'táo	dáie	yoáin diré	datzíle
Usi	bakárri'táo	badaye	joáin diré	dazíle
Anotz	bakárri'táo	yoáten da (2)	yoáin diré	dázile
Ziaurritz	bakárri'táo	badayé	yoain dire	dazille
Olaitz	bakárrrik dágó	bádáye	fain diré	--
Inbuluzketa	bakárrrik daó	badáe	joáin di(r)é	dazíle
Urnitza	dágó bakárrrik	bádaé	féin diré	dazíle
Ilurdotz	bakárrrik dágó	bádáye	joáin diré	dái(t)zile
Espotz	bakárrrik deó	--	fáin diré	dazíla
Arrieta	bakárri(k) dáo	joáten da (3)	joáin diré	joan deiztéla
Azparren	bakárrrik dá (1)	banae (4)	fánen diré (6)	--

(1) *dá bakárrrik* ere bai.

(2) eta (3) ez dute zuzenki erantzun.

(4) singularreko lehenengo pertsonan eman du erantzuna.

(5) *deé, de(r)é, diré*, hirurak izan daitezke.

(6) *dirá* ere bai. Aezkoatiko eragina ote?

	aditz-joko batzu:			
	etorri zen	mozkörtzen da	hiltzen duzue	hark, horrek, berak daki
Ihabar	tór zén	mozkórtzen da	íltzen duzté	arrék dakí
Urritzola	etorri zen	mozkörtzen da	iltzen duzté	béak bádakí
Larunbe	tor tzen	mozkórtzen da	íltzen duzté	béak bádakí
Beorburu	etórri zen	mozkórtzen da	íltzen duzié	órrek bádakí
Usi	tórri zen	mozkórtzen da	íltze'uzié	béra'takí
Anotz	tórri zen	mozkórtzen da	íltzen duzié	bérak dakí
Ziaurritz	torri zen	mozkórtzen da	iltzen duzié	orrek bádakí
Olaitz	--	mozkórtzen da	il duzié (5)	badaki
Inbuluzketa	tórri zé	mozkórtzen da	íltzen duzié	béra'takí
Urnitza	tórri zén	mozkórtzen da	il duzié (6)	béak dakí
Ilurdotz	(e)tórri zé (1)	mozkórtzen da	íltzen duzié	árrek bádakí
Espotz	etórri zé	mozkórtu da (3)	il duzié (7)	órrék bádakí
Arrieta	etórri zé (2)	mozkórtzen da	iltzen duzié	órrek bádakí
Azparren	etórri zé	mozkórtu da (4)	ik il duk (8)	dakizú (9)

(1) eta (2) *zén* ere bai.

(3) eta (4) lehenaldi burutuak dira horiek.

(5), (6) eta (7) lehenaldi burutuak horiek ere.

(8) lehenaldi burutua eta pertsona bera ere aldaturik.

(9) pertsona aldaturik.

	aditz-joko batzu:	
	erretzen du / erre du	ikasten du / ikasi du
Ihabar	érre eitten du / érre eín du	ikíxten dú / íkes du
Urritzola	érretzen du / érre du	ikésten du / ikési du
Larunbe	errétzen du / érre dú	ikésten du / ikési dú
Beorburu	errétzen du / érré du	ikésten du / ikési du
Usi	erretzen du / erre du	ikésten du / --
Anotz	errétzen du / érre du	ikésten du / ikési du
Ziaurritz	errétzen du / érre du	ikésten du / ikési du
Olaitz	-- / erre du	-- / ikési du
Inbuluzketa	errétzen du / érre du	ikésten du / ikési du
Urnitza	errétzen du / érre du	ikésten du / ikési du
Ilurdotz	errétzen du / érre du	ikésten du / ikési du
Espotz	-- / érre du	-- / ikási dú
Arrieta	errétzen du / érre du	ikásten du / ikási du
Azparren	-- / érre dú	-- / ekási dú

	aditz-joko batzu:	
	itzaltzen du / itzali du	bidaltzen du / bidali du
Ihabar	itzél ittén du / itzéli in dú	igòrtzen dú / bigéldu du
Urritzola	itzáltzen du / itzáli du	biáltzen du / biáldu du
Larunbe	itzéltzen du / itzéli du	biéltzen du / biéldu dú
Beorburu	itzéltzen du / itzéli du	igórtzen du / biéldu dú
Usi	itzéltzen du / itzéli du	bigéltzen du / --
Anotz	itzéltzen du / itzéli du	igórtzen du / igórri du
Ziaurritz	itzéltzen du / itzéli du	igórtzen du / igórri du
Olaitz	-- / itzéli du	-- / igórri du
Inbuluzketa	itzéltzen du / itzéli du	igórtzen du / igórri du
Urnitza	itzéltzen dú / itzéli dú	igórtzen du / igórri dú
Ilurdotz	itzéltzen dú / itzéldu du	igórtzen du / igórri dú
Espotz	-- / itzéldu dú	-- / egórri dú (1)
Arrieta	itzáltzen du / itzáli du	iórtzen du / iórri du
Azparren	-- / izérki dú	-- / igórri du

(1) *biéldu dú* ere bai.

	aditz-joko batzu:	
	biltzen du / bildu du	ezkutatzen du / ezkutatu du
Ihabar	bíltzen dú / bíldu dú	eskóndetzen du / estáli in du (1)
Urritzola	bíltzen du / bíldu du	eskútatzen du / eskútatú du
Larunbe	bíltzen du / bíldu dú	ortzítzen dú / órzi dú
Beorburu	bíltzen du / bíldu dú	altxátzen du / ortxátu du
Usi	bíltzen du / --	altxátxen du / --
Anotz	bíltzén du / bíldu du	altxátzen du / altxátu du
Ziaurritz	bíltzen du / bíldu du	altxátzen du / altxátu du
Olaitz	-- / bíldu du	-- / altxátu du
Inbuluzketa	bíltzen du / bíldu du	altxátzen du / altxátu du
Urnitza	bíltzen du / bíldu dú	altxátzen du / altxátu dú
Ilurdotz	bíldútzén du / bíldu du	altxátzen du / altxátu du
Espotz	-- / bíldu du	-- / altxátu dú
Arrieta	bíltzen du / bíldu du	altxátzen du / altxátu du
Azparren	-- / bíldu du	-- / altxátu du

(1) lehen kasurako *ór(t)zi eitten du* eman du ere.

	aditz-joko batzu:	
	galdetzen du / galdetu du	amets egiten dut / amets egin du
Ihabar	gáldetzen dú / gálde eín du	amésk. ibílltu náiz / amétsa in du
Urritzola	galdítten du / gáldin du	-- / améts in du
Larunbe	galdétzen du / gáldin dú	-- / amésketan ibíl da
Beorburu	galdítten du / gáldin dú	amétsa in dut / améts in dú
Usi	galdíten du / --	amésk. egóten naiz / améts in du
Anotz	galdíten du / gáldin du	-- / amésketan egón da
Ziaurritz	galdíten du / gáldin du	-- / améts in du
Olaitz	-- / gáldin du	-- --
Inbuluzketa	galdíten du / gáldin du	-- / amésketan egón da
Urnitza	galdítzen du / gáldin du	améts in dú / améts in dú
Ilurdotz	galdítzen du / galdátu du	-- / amétsa in du
Espotz	-- / --	-- / --
Arrieta	galdíten du / gáldin du	-- / amésketan áitu da
Azparren	-- / gáldi(n) du	-- / --

Oharra: Ihabar eta Usik, lehenengo kasuetan, *amésketan ibílltu náiz* eta *amésketan egóten naiz* eman dute, leku-faltagatik era laburtu batez idatzi badira ere.

	izen-sintagma bi:	
	etxe hau	ogi hori
Ihabar	ítxe áu	ógi óri
Urritzola	etxe au	obi ori
Larunbe	ítxe au	ógi ori
Beorburu	ítxe au	ógi orí
Usi	ítx'áu	ógi ói
Anotz	ítx'áu	ógi ói
Ziaurritz	etxe au	ogi oí
Olaitz	itxe au	ógi orí
Inbuluzketa	ítxe áu	ógi oí
Urnitza	étxe áu, gáu	ógi gógi
Ilurdotz	étxe áu, gáu	ógi ói
Espotz	etxé gáu	ógi gógi
Arrieta	étxe gau	ógi gógi
Azparren	étxe gáu	ógi orí, góri

Ondoren, eta zenbait apuntetatik aterata, hala artikulurik gabe nola artikulurik singular edo pluralarekin aurkitzen den izen edo sustantibo-mordoxka aurkeztuko dugu, aurreko koadrootako informazioa gehitzera etorriko delakoan:

ARTIKULURIK GABE

- Arakil: árdi, marmítte (mugatugabea; hemendik aurrera *mg*), ún-tzi, zúlo, mándo, jáski, andáitz, zúre (*mg*).
- Guli(n)a: télla (*mg*), zéa (*mg.*, hots, hitz egokia bururatu bitartean erabili ohi dugun hizkunea), gizón.
- Txulapain: péntsu, gixón (pentsu-mota bat), katxárrro, gáuz (!), (*gáuz oník* delakotik aterata), gérra, agúdo, gáuze (*bèste gáuze báite* esalditik aterata), arrópa, (*arrópa óna*).
- Ezkabarte: arráno, gizón (*gizon* ere bai, baina *gizón* gehiago), gáuze (*gáuze batzúk* eta *gáuze bát*), txekór, írri, órdu (*ordú* ere bai), eskóla (*eskóla edérre*), álde, platér, zúlo, errégu (= bikor-neurria), telátto, kidér, ezpél, biór, artzái, púske (*púske bátian*), aldápa (*aldápa bát*), bíde, úrte.
- Olaibar: árdo, odólte, tuntún (gaztel. «tamboril»), galéra (*mg.*, gaztel. «carro»), néska (*mg*), biárri, illebéte, orbél, bazkári, niñáre (= enara), óllo.
- Odieta: aixkíde, pikór, iriñ, ógi, afizióne, makíne (*mg*), belár, gáuze (*mg*), fílda, arréba (*mg*), ítxe/étxe, belárri.
- Esteribar: úrte, aurtzéi, eskóla (*mg*), póbre, gizón, ítxe, aldápa (*mg*), nesáko, sagár, debozióne, tzérri, itúrri, arrazóin, gázta (*mg*), éultzi, zartégi, gatzáin, maztéki, sagár, jénte, serréria (*mg.*, neurri batez harrigarria, mailegua izanik), étxe, arró-

tze, mutíko, érki (gazel. «tea»), epér, áuntz, pikór, eltxáur, burtzintz, úme, gáuze (mg), ógi, oztíko, eún (gazel. «día»), gízón, égie (mg).

Erroibar: biór, tóki, denbóra (mg., *dénbora* ere bai), txérri, gáuze (mg), étxe, ásti, txurrúta (mg), txínger, sagár, ógi (*ogi* ere bai), il(l)ebéte, eskóla (mg), úrte (*urté* ere bai), séme, guátze, fésta (mg), bézko, méza (mg), érrí, bágo, zílo, órdu, egúr, mutúr, záku, egún, ingúru, ikátz, itzáłki, aixkíde, etsóla (mg).

Auritz/

Orreaga: mándo, lapáte (belar-mota bat), gízón, amátxi, apátxi, ésku, úrte (*urté* ere bai), lektzióne, adín, gáuza (mg), denbóra (mg), aziénda (mg), béi, méndi, kárgu, étxe (*etxé* ere bai, *etxé ori* izen-sintagman, adibidez), aféra (mg., baina *áferá* dugu, mugatua), séme (*semé* ere bai), díru, egún, órdu, árri, konpórta (mg), úri (= euri), lusa(g)ár, lóra (!), ilabéte, gólde, erdára (mg), uskára/eskuára (mg), yáuzi, bórda (mg), zíri, makíl (!), elúr, estrabília (mg).

Artzibar: mutíko, séme, kuxéta (mg): *zuléxko kuxéta*), batéo, amítxi, patáka (mg), bikór, zító, gáuž (!), kajón, atári, tzakúr, zezén, zálke, argizári (baina *argizaría* eta *argizariá* mugatua), áldi, denbóra (mg), arróitu, aixkíde, ingúru, yénde, sorgín, gurútze, prozesióne, idiánde (= igande), alába (mg), prinzésa (mg), kóntu, nesáko, itúrri, léze, gaixkíkéria (mg), étxe, egún, aldápa (mg), amén, indár, úrte, púska (mg), náusi, ruéda (mg), gízón, arriantónia (mg, lore baten izena: *arriantónia bat*), bíde, tipúla (mg), baratxúri, zórri, burúte, altxúrko (aitzur ttikia), mutíko, neskátxa (mg).

Salbuespenak ³

Arakil: ódol, kázola (*kázola bat*), gízón, dirú, lixú, kúrrillo (lurra lantzeko lanabesa).

Txulapain: dénborá (mg, *dénbora ayetáko*).

Ezkaarte: errí, úrrin, ordú, dénborá (mg), denborá (mg), obí (= ogi, hirutan), ardí, gízón (*gizon úre*), etxémeni, aldí.

Olaibar: ópil.

Odieta: itxé, urté, dénborá (mg).

Esteribar: urté, dénborá (mg), gízón (hiru hitz hauek behin baino gehiagotan honela).

3. Salbuespen gisa agertzen diren hitzak ez zaizkigu beti kasu berean agertzen; hots, hemen *arrástelu* hitza agertzeak ez du esan nahi beste testuinguru batetan *arrástelu* gisa ezin ager daitekeenik.

Erroibar: dénborá (mg), ogí, árrats, urté, aizpá (mg), bidé, asté, arrás-telu, íkatz.

Auritz/

Orreaga: zakú, urté, mútiko, semé, etxé, errí, búrdina (mg), ardí, negú (*negú bat óna*).

Artzibar: argí, urdé (bi hitz hauek behin baino gehiagotan), gízon, aldí, urté, arí (= ahari).

ARTIKULU SINGULARRAREKIN

Arakil: sáldoa, urrítze, ésénea/ésnia, agótza/aótza, sekrétoa, kuá-joa, úmia (*umía* ere bai), jàskigíllia, férie (mugatua; hemen-dik aurrera *m*), ongárrie, lúrre, tratória, landárria.

Guli(n)a: bañéra, labána (m), kanáite (m), enbutídoa, urdáia (bi azen-tu), úre, atzapárria, zakúrre.

Txulapain: líyue, gáztia, lábia, platéra, lújoa, bízioa, gósia, sagárria, ítza.

Ezkabarte: arráma (m), tzakúrre (*tzakurré* ere bai), ailtzúrre, ábria, ítza, méza (m), bídia, bazkárié (bi azentu), orántza (m), zúlúa, lábia (*labía* ere bai), biátza, egúrre, ezpéla, jítoa, maléza, mutíkoa, ótza, biórria, petrália.

Olaibar: meréndue, axárie, ótsoa, máye, itúrrie, tuntúne, alkordeó-na, umérrie, basagátue, sagárria.

Odieta: mutúrre, orántza (m), grázie, egúrre, tellétue, úre, bulárria, pikórria, aizia, aixtélue, agótza, memórie, erróta (m), estrásie (m), aziénda (m), gárie, egúne, pápua, zikírria, larráñe, ítzea, ipurúkua, zóla (m), izéna, lúrre, azároa.

Esteribar: izéna, alkátia, makíle (m), yatékua, úre, bulérria, urdéia, ógie, áma (m), áite (m), sagárria, túbue, étxea, uskéra (m), estrázie (m), bazkárié, áizpe (m), eltzáurre, bisíte (m), úsoa, ánka (m), biórria, anáia, (koadroetan bezala, Inbuluzketan; seguru asko bata zein bestea *anáëa* edo *anáëa* izango dira. Antzeko kasua zera dugu: *itzéa* (= itzaia).

Erroibar: eúrria, ártoa, uskára (m), agótza, beldúrria, sagárria, áurria, bídia, lóia, lúrria, zóia, ikátza, zákua, ikaztóia, urdáëa, ógia.

Auritz/

Orreaga: óloa (*òloá* ere bai), brabána (m), lána, lapátea, adína, áita (m), sémea, dírua, errópa (m), mutíla, irúzkie, lusagárria, ongárria, lúrria, yéndeä, beláia, péntzea, sóroa, mutúrria, egúrria, irátzia, barrókia, lánoa.

Artzibar: mutíle, zángoa, makílle (m), títie, bílua, bídia, alórria, akérria, ordótsa, tzerrikúmia, almútea, txintxárea, ugáldia, naúsia, bikórria, arátzea, máëa (= mahaia), zálkea, irúzkie, aziénda (m), atária, ótsoa, malkárria, yéndeä, ukaráia, elúrria, lúrria, éskua, makíla (m), tzakúrria, zépoa, luzétasúna,

erráutsa, sakamállue, lána, zíloa, oiána, legárra, sagárra, maztékia, éria (= behatza), barátzea, érria, étxea, tziñúrria.

Salbuespenak

- Arakil: umía, dénboa (non, *-oa* horrek, errazki antzeman daitekeen, diptongorik egiten ez duen), lixúe, gizoná.
- Guli(n)a: txerrié, makumeá, ározá, ódola, ízena, limosná.
- Ezkabarte: tzakurré, burúe, librúe, umiá, obíe (= ogia), labía (askoz ere gutxiagotan, halere, *lábía* baino), erríe, exkúe/eskúe, bazkaríe, abríá.
- Olaibar: kafía (gaztel. «el café»), kopatxóa, saskíe.
- Odieta: ogíe, arrástelue, arréxtelua, garíe (bitan), seméa, abréa, kòpetakoá, sárdekua, búztarrie, èuskalduné, oràmaié, órbela.
- Esteribar: eultzíe, aríe (gaztel. «el hilo»), kontúe, larrúe, ogíe (hiritan).
- Erroibar: tzerrié, aité (m), andríá, egitéa (gaztel. «la hoz»), amá (m), aizéa, autsá, àrrebá (m), urtéa, uré, mezá (m), erríe, bidéa.
- Auritz/
- Orreaga: ùltziá, òloá, azía, ilábeta, aréa (gaztel. «la rastra»), áferá (m), urá, negúa.
- Artzibar: buzúa, gatúa, usúa, ulíe, burdiñé, ogíe, goldéa, urtéa, uméa, azía, argizaría (bitan), argízariá, euría, burúa, arría, gaixtíkeria (m), etxéa, titía, goséa, astéa, buruá.

ARTIKULU PLURALAREKIN

- Arakil: trípek, ánkak, árrak, euskaldúnek, gáztiek.
- Guli(n)a: trípek, tripótak, xardékoak.
- Txulapain: maindériak (bitan, baina *máinderiak* ere bai beste batetan), gárbak, notízíek, ógiek, gérrak, emakúmeak, kazólak, sagárrak.
- Ezkabarte: gizónak, úsoak, béiek, lagúnek, sagárrak, neskákoak, mutíkoak, biórrak, kópak, káfiak (gaztel. «los cafés»), egúrrak, zamúkek.
- Olaibar: barrabíllek, múñek, áitetámak.
- Odieta: áurrek, oiálak, mikelétiak, áidiak, kanabítek, sáriak (gaztel. «las redes»), espórtak, adárdúnek, pikórrak, eltxáurrek, kaxárroak, brabának, belárrak, ógiek, záldiek.
- Esteribar: gázteak, anáiak, izénak, yatékuak, urdéiak, eúrrek, kanabíte(a)k, ábreak, tíroak, ártuak, árbiak, asúñek, bazkáriek, gránuak, gáriek, biórrak, béak (= behiak), gáztak, amones-

- tazióneak, sagárrak, eltzáurrek, zapétak, matélak, píkuak, látxoak (gazel. «los lazos»), ábárrak, egúrrek, zúmiak, dí-ruek, arának, ógiek.
- Erroibar: biórrak, fériak, altzúrrak, aizkórák, anáeak, gáltxaxabálak, últziak, agótzak, tripótak, muñigak, sagárrak, alórrak, sé-meak, trúnkoak, egúrrak, ziloak, espórtak, ikazkínak.
- Auritz/
 Orreaga: uskáldúnak, èuskaldúnak, axkídeak, béiak (*béak* ere bai), fran(t)sésak, gázteak, arétxeak, belárrak, sóroak, beórrak.
- Artzibar: kanibétak, emastékiek, úmeak, gizónak, egúrrak, gerrún-tzeak, kakamikólak (ardi eta ahuntzen kakak dira), bíloak, espartínak, béak (= behiak), kátiak, ganbélak, arróit-uak/garróituak, aziéndak, piénsoak, xaxkítóak, sorgínak, yéndeak, apézak, mutíl(l)ak, ólloak, ongárriak, mánduak, txakurkúmiak, sagárrak, platéak, geréxioak, arrazóñak, tzakúrrak, óstoak, pasákak, izérdiak, gurútzia, mutílak, gáltzak, barrabílak, kakólak (ardi eta ahuntzen kakak dira).

Salbuespenak

- Arakil: mákinek, urtiák.
- Guli(n)a: gizenkíek, espeziák, urdeiék, kanábitek (baina *kanáite*).
- Txulapain: mixeríek, goséak, eskúek, sagarrák (hau oso arraroa, ia beti *sagár, sagárra, sagárrak* izaten baita).
- Ezkabarte: usúak (*úsoak* ere bai), beíek (ia beti *béiek*), ságarrak (ikus goraxeago esanikoa), ogíak (*obíe* eta *obíek* ere bai), èskuék.
- Odieta: frantsiék (gazel. «los franceses»), ardiék, zamukék, òlaták, kántuék, trátoreak.
- Esteribar: guardiék, mákinek, ardiék, ságarrak, ostóak, ogíek (hiru-tan), itxéak, àrboleák.
- Erroibar: granóak, fèrreták, aurrák, kontúek, ziloák, zakoák.
- Auritz/
 Orreaga: arriák, uskáldunák, beiák, idiák, neskák.
- Artzibar: katiák, katéak, argizariák, tresnák (gazel. «las ropas»), le-zéak (bitan), eskolák (mugatua, erronkaria oroitarazten duena, honelako kasuak hain urriak ez izanik gainera), markák, sagarrák, ardiák, festák, kantúak.

Eta Mitxelenaren lanera itzuliz, honela jarraitzen zuen: «Casi al final de aquel artículo» –Mitxelena berriro zuzentzen zaio lehen aipatu Anuarioko artíkulu hari– «venía una observación sobre la acentuación gráfica en las obras de Joaquín Lizarraga de Elcano (Egüés), que podría representar el antecedente histórico de nuestro tipo III: 'ejemplos como *billátzen, cillégui, soñécoa, eztáitzen* (= *ez daítezen*) *aguértu bére óbrac*, etc., parecen indicar –se decía–, que, después de todo, este tipo no es tan reciente'. 'Reciente' se refiere aquí al hecho de que, descriptivamente, la regla que asigna el acento sobre una sílaba de la palabra es posterior a la pérdida del carácter silábico de las vocales cerradas y medias en hiato, tanto en *árria* como, según toda

probabilidad, en Liz. *soñécoa*, etc. De /aRia/ sólo llegamos a /áRja/ pasando por /aRja/, donde todavía no está marcado el acento», honen ondoren beste zenbait euskalkirekiko gonbarazio egoki batzu eginez. Elkanoko idazle ospetsu hark idatzirikoaz zertxobait esan aurretik, eta lehen zati honi, bada, nolabaiteko bukaera ematearren, zera gaineratu nahi genuke koadroetako eta gainerako informazioari begiratu bat eman ondoren: hitz batzuren ahoskera, euskalki honen ia hedadura guztian barrena –Arakilgo salbuespena, zatika bederen, egin bailiteke– berdin samarra entzuten dela: *áite*, *alába*, *anáie*, *áizpe*, *illéba*, *bába*, *gázta*, *sóka*, *zúre*, *atórra*, *aizkóra*, *denbóra*; *lórea*, *sémea*, *súbea*, *guátzea*, *ésnea*, *arrótzea*, *aixkídea*; *óloa*, *ólloa*⁴, *lépoa*, *óstoa*, *mándoa*, *txitxíroa*; *órtzak*, *értzeak*, *zapétak*, *izárrak*, *azazkálak*; *zezéna*, *gizóna*, *lagúne*; *iríñe*, *zurgíñe*, *záñe*, *ezpáñe*; *beláuñe*, *azála*, *gibéla*, *mutíl* (*l*)e, *odóla*, *belárre*, *il(l)érra*, *ollárre*, *garagárre*, *ezúrre*, *elúrre*; *orrátza*, *iké-tza*, *arótza*, *ortótsa* eta *apéza*, esate baterako. Bitartean, beste batzuren nahiko zalantzakor agertzen zaigu: *árrie*/*arrie* –Mitxelenak hitz hau, Joaquín Lizarragari jarraiki, seguru asko, adibidetzat jarri arren–, *gárie*/*garie*, *záldie*/*zaldie*, *zórrie*/*zorrie*, *árdoa*/*ardóa*, *ástoa*/*astóa*, *ólloa*/*olíoa*, *ságue*/*ságüe*, *lárreue*/*larrúe*, eta *lístue*/*listúe*. Salbuespen orokor gisa, agian, Arakil aipa genezake, non, Ihabarko azentuak –Urritzolakoak ez hainbeste– gipuzkera oroitarazten digun; hots, Sakanako «gipuzkera» aldera jotzen duela dirudi, zenbait gauzatan –eta adizkietan batez ere– ongi berezten den arren. Urritzolako azentua, neurri batetan Ihabar aldera begira badago ere –hori da, behintzat, geure uste apala– ekialderantz gehiago hurbiltzen dela iruditzen zaigu.

Alabaina badugu hor beste arazotxo bat, Mitxelenak, agian, euskalki honekiko azentuazio-egiteez ideia orokor bat eman nahi izatean –gogora dezagun berak aipatu «desde un punto de vista puramente impresionista (...)» hura– kontutan hartuko ez zuena: bestelako egoeran aurkitzen diren azentuazio-egiteak, alegia; izan ere, eta hark berak esan zuena errepikatuz, «dentro del nombre singular, son típicas» –azpilerrotua geurea da– «acentuaciones como *ábratsa*, 'rico', *egúne*, 'día' (...)». Hots, ez zuen ukatu ere egin bestelako azentuazio-egiteak izan daitezkeenik, gehien nabaritzen edo entzuten direnak zernolakoak diren edo non doazen esan baizik. Honegatik, eta lan honetara ekarri datuak oso neurri haundi batez hark esanikoa egiztatzeraz eta sendotzeraz baldin badatoz ere, bestelako azentuazio-egiterik ere badela ikus dezakegu.

«Egoera berri» honen ondorioz, beraz, zera zaigu aurkezten: baldin azentu batek hitz mugatuaren azken diptongoa hausten badu, arestian aipatu *arrie*, *garie*, *záldie*, *negúa*, *gatúa*, *burúa* bezalako hitzetan gertatzen den bezala, edo-ta, diptongo egitera iritsi ez diren bi bokaleetatik aurrenekoan erortzen bada, *igitéa* (lau sil.), *ardóa*, *ollóa*, *ostóa*, *aizéa*, *bidéa*, *urtéa*, *goldéa*, *uméa*, *astéa*, *goséa*, *itxéak* eta *lezéak* (guzti hauek hiru sil.) hitzekin gertatzen den bezala –azken hauek Esteribartik ekialderantz éntzun ohi dira–, nola ez esan, orduan, hitz guzti hauek ere, azentua beste leku batetan

4. *ólloa* eta *ollárre* bereziki (baina ez hitz hauek bakarrik) beti honela, are l-a ia bustitzen ez den Esteribartik ekialderantz ere. *Burundan* eta *Aezkoan* aldez, bustidurarik gabe.

eramanik ere, azken-hurrengo silaban eramaten ez dutenik? Beraz, ongi egin ote dugu, *arrie*, *garie*, *negúa*, *gatuá*, *aizéa*, *bidéa*, *ollóa*, *ostóá* gisako hitzek erakusten duten azentuazio-egitea *Salbuespenak* deritzaten arloetan sailkatzean? zeren, baldin hemen idatzirik agertu bezala entzuten badira, azken-hurrengo silaban dugu azentua guzti hauetan ere: *árrie* eta *arrie*, biek azken-hurrengo silaban, gorabehera zerean datzala: lehen kasuan *á-rrie* (hots, bi silaba, *ie* diptongo izatean), eta bigarrenean *a-rrí-e* (hiru silaba, azentuak diptongoa haustean), bi kasuotan, beraz, azentua hitz mugatuaren azken-hurrengo silaban dugula.

II

Bere lanaren 5. puntuan Mitxelenak, Elkanoko Joaquín Lizarragaren lan batetan oinarriturik María Lourdes Etxeberria Sarasolak, bere lizentziatura-tesinarako, duela urte batzu prestatu zuen *El acento nominal en «Jesucristoren evangelio sandua Juanec dacarren guisara»* izeneko lana aipatzen du, iker-lan honetatik ateratako ondorio garrantzitsuak eskainiz.

Gure lan honen xedea Elkanoko erretorearen obra aztertzea ez izanik ere –bestek egina du honuz gero, eta oso ongi gainera, Mitxelenak, nolabait, aditzera ematen digunez–, harengan ematen diren azentuazio-egite batzu begibista aurrean agertu eta, bide batez, EGUESko hizkerak mugakide zuen ARTZE deiturapeko hizkeratik hartutako adibide batzu ekarri nahi genituzke honera, adibideok apalak izanik ere –azken urte hauetan bilduak izanik ezin zitezkeen, noski, hobeak izan–, halakoxe gonbarazio moduko zerbait egitearren. Eta honetarako, bada, zein egokiagorik gure lanerako informatzailerik benetan bikaina izan dugun hego-Esteribarko ilurdoztarra baino? izan ere, EGUESko hizkerak edo barietateak –eta Elkano honi zegokion– hego-Esteribarkin mugatzen zuen eta, ibar-inguru hau Bonapartek Artzibarko «zakuan» sartu zuenez, egokia iruditu zaigu, era berean ere, haran honetako Arrieta herriko datu batzu honera ekartzea. Komeni litzateke kontutan hartzea, halere, elkanotarraren jakinduria eta euskararako zuen trebetasuna –eta euskara bera, garai hartan, inguruko jendeak egiten zuen hizkuntza izatea– ezin daitezkeela inondik inora konpara gaurko agure on hauek, doi-doi baizik –hizkuntza ahaztu xamarra izan dute-eta– egiten ez duten euskararekin, noski. Denborak esango du, gai honek sakonkiago aztertua izateko ahaleginik egiterik merezi ote duen. Baietz espero dugu.

Lizarragaren liburu bat kontsultatu dugu: *Doctrina Christioarén Cathechima –Fede Christioarén gáin*, Juan Apezetxeak prestatu eta Nafarroako Foru-Diputazioak, Príncipe de Viana deritzan Erakundeak eta Euskaltzaindiak, 1979.ean Iruñean argitara emana.

Bertan ikusi gauzetan izan da, bai, gure ardura erakarri duen zerbait; baina utz diezaiogun Koldo Mitxelenari, hark berak –7 puntuan, a)– adieraz diezagun:

«El numeral *bat* usado como artículo indeterminado: *mutico-bát*, *arri-bát*, etc., cf. *oroát* 'igualmente', de *orobat*. Con sufijos de declinación, generalmente *asto-báten*, *bátec*, etc., con acento en la penúltima, pero pl. *-batzúc*.»

Hau, egia esan, eta izan garen herrietan aditu eta entzun ahal izan duguna aditu eta entzunik, harrigarri samarra gertatzen zaigu. Elkanoko mintzamoldearen ezaugarri bereziren bat izango ote zen, agian?

Eta Mitxelenak berak, aurreraxeago -7. puntuan, d)- zera gaineratzen du: «El verbo personal, finito, se conduce, en general, como una posposición, con relación a las formas nominales y a las partículas prefijas: *badá*, *eztá*, *eztúte*, *baitút*, *egon-dá*, *uzten-tú*, *iten-dúcie*; verbo sólo en *dágo*, *cégo(n)* '(que) estaba', *cególa*, etc.».

Hots, aditz laguntzaileak, silaba bakarrekoa bada, azentua bereganatzen du; hona adibide batzu, Apezetxeak prestatu liburutik harturikoak:

sinestatzendút, *escribitutút*, *eztút escribitu*, *eztú aurquitúco*, *deitzendá*, *erresucitatucé*. Salbuespenak zera izan litezke: *izanénce*, *egónce*, *emánzue*, *igánce*, non, agian, izen-sintagma laburrak izatean, beste tratamendua hartuko zuten. Aurrenekoen artean, halere, *deitzendá* bat ikusten dugu.

Aditz laguntzailea bi silabaz osatzen bada, bietarik aurrenekoa da azentua bereganatzen duena:

bicigára, *moguitzengára*, *deitzendúgu*, *estimatzenbadúgu*, *gurucificatuzúte*, *orcizúte*, *joszizúte*, *izandézan*, *estimazágun*, *izandézan*, *eztáien ági*, *eguín eta deseguín dezágun*.

Aditz sintetikoekin ere gauza bera (ez beti, halere):

bentzáit badáqui, *goácen billátzera*, *pagáturic dágo*.

Baina aditz-laguntzaileak atzizkiren bat hartzen badu, orduan azentuak atzera egiten du, beti ere azken-hurrengo silaban geratzeko moduan:

betetzenduéna, *inzuténa*, *usatzentugúla*, *deitzentugúnac*.

Salbuespenak badira zera honetan ere, baina, egia esan, benetan urriak iruditu zaizkigu.

Dena den, Lizarragak ez zituen, gure ustez behintzat, azentuazio-egite guztiak behar bezala jaso, ez antzik eman ere. Begira, bestela, honako esaldiotan erreparatzen badugu:

<i>ta escatucobaitigu beras contu ayétas ta...</i>	29 or.
<i>Eztá guelditzen, baicic etsituric gueuren aldétik...</i>	29 or.
<i>Jangoico Aita gucis poderosoabaitan: bérta...</i>	32 or.
<i>ezin comprendidaiquen Magestadebát,</i>	33 or.
<i>úrac bustitzea, gauza viciéc vicitzea, ta moguitzea</i>	33 or.
<i>Jangoicoac ofrecituric aguitucocéla</i>	35 or.
<i>Nondic etorricobaita ilen ta vicién juzgátzera</i>	37 or.
<i>moguitugábe bere manamendu solles edo itzas Cérta...</i>	123 or.
<i>ta icustendiren, ta icusteneztiren gauza guciác.</i>	123 or.
<i>Biac omenzeude consagraturic Jangoicoari castidadearén</i>	
<i>vóto perpétuos</i>	146 or.
<i>eta libre guelditubeardire gaichstoak emén...</i>	186 or.

Hots, guzti horietan hamar baino silaba gehiago batere azenturik gabe ikusten dugu, azentuazio-egiteak markatzen hasiz gero, noski, ezinezkoa iruditzen zaiguna.

Eta ikus dezagun azkenik, lehen iragarri bezala, *Ilurdozko* (hego-Este-

ribar) eta *Arrietako* (Artzibar-Urrobi) informatzaileek emaniko esaldi batzu, kasu hauetan, eta haran horietan euskara itzaltzen ari denez, lekukotasun haundikotzat har ditzakegunak. Esaldiok José Estornés Lasa zenak (G.B.) aldizkari honetan argitara emaniko «Erronkari'ko uskaraz elestak / Fraseología roncalesa» (FLV 40, 1982) izenburuko lana prestatzeko erabili zuen galdera-sortatik harturik daude.

1. Ilurdotz: goizétan garbítzen náiz.
Arrieta: góizetán, garbítzen naiz.
2. Il.: mutíkuak zékíntzen diré lóiekin.
Ar.: mut(t)íkuak, zikí(n)tzen diré, loéakin.
3. Il.: ikusíku (sic) gará biér.
Ar.: biár kúsiko gára.
4. Il.: aéxkiák galdítzen tzíre égia zén edo gezúrre.
Ar.: aizkídeak... galdíten zuté yá... egía zén edo gezúrre zén.
5. Il.: emán diré (= dit) yatéra eta edatéra.
Ar.: emán dirá yátera, ta... edátera.
6. Il.: aitú zuténéán, enfadátu zíre dénak.
Ar.: óri... aitú zutéla, dénak... enfadátu ziré(n).
7. Il.: zéin zakárta basúrdia!
Ar.: bàsurdía itsúsia dá!
8. Il.: zénbat záuntz zitué gizón garrék!
Ar.: zénbat ezáunak zuén arék!
9. Il.: zálui inen dá egúne, egúnez.
Ar.: fíte... argítiko dá.
10. Il.: izéin dé... eráuntsi bét izéin de.
Ar.: égu... gáur denbóra makúrtiko dá; eráuntsi gáixto zenbáit tòrriko dá...
11. Il.: iten dú denbóra idórra.
Ar.: denbóra idórra... iten dú.
12. Il.: ín du ortóts áunitz.
Ar.: ortóska... ortós... áundia iten dú, áni(t)z... iten du.
13. Il.: barátu dé áizia.
Ar.: áizéa... barátu da; geldítu da.
14. Il.: zórtzi elibéte (sic)... ilebéte ónetán eztút ikúsi.
Ar.: zórtzi ilabéte e(b)etán, eztút ikùsi.
15. Il.: tòrtzen délaik, kantátzen dú ataríen.
Ar.: tòrtzen deláik, kantátzen dú atárian.
16. Il.: pasátu dú láu ilbéte bórdan.
Ar.: láu ilabéte pàstu dú... bordán.
17. Il.: pasátu dút íru úrte Zúbrín, Zubríen.
Ar.: íru úrte pàstu'út... Urítzen.
18. Il.: etórri diré gizón áunitz.
Ar.: gizón áunitz tòrri diré.
19. Il.: izén dá apéz áunditz mézan.
Ar.: áni(t)z apézak izan diré mézan.
20. Il.: izén tugú mutíko aunitz.
Ar.: áurr ánitx izan dugú.

21. Il.: Pédroin etxán dénak díre nekazárik.
Ar.: Pedróin etxeán, dénak diré... alorréko langill(e)ak.
22. Il.: urdáiztarrák, dénak díre motxáleak.
Ar.: Urdirótzen, dénak diré motzáleak.
23. Il.: Felípe zé arótza.
Ar.: Felípe zé... arótza.
24. Il.: bére áite zé argíñe.
Ar.: áren... áita zé... argína.
25. Il.: yardúkitzen dút, nik, áise.
Ar.: yardúkitzen náiz (!)... áisa.
26. Il.: éztút étxeik eta áiteik ére.
Ar.: éztút etxéa ta... éz áita ere.
27. Il.: érrién dá góse aundíe.
Ar.: góse á(u)ndi dá... érrían.
28. Il.: gábas.
Ar.: gábaz.
29. Il.: mutíkua, àtra zák eltzéa.
Ar.: muttíkua, átra zák éltzea.
30. Il.: erráten duté zú, zúre, inéin dizuté alkátea.
Ar.: erráteunté alkátëa izáin zaréla, nonbrátiko... zaréla.
31. Il.: ínen dút kontént.
Ar.: gùstorá inéunt; òri in bíaut gústora.
32. Il.: badá, báda órdúe etxéra fuatéko, etxéra yoatéko.
Ar.: yá tenórea dugú, etxéra juatéko.
33. Il.: mántso-mántsoá atráko dá óngi.
Ar.: érrepóski, óngi atráko da.
34. Il.: garbítzen dút éskuek; garbítzen tút.
Ar.: eskúak garbítzeúnt; garbítzen tut.
35. Il.: Pázkuan yoáin gerá mezára.
Ar.: Bàzkuetan juàin gará mezára.
36. Il.: óri dé maztékien gáuze.
Ar.: óri dá... maztéen gáuzak.
37. Il.: gábas eta egúnes. (egúnez ?)
Ar.: ègunés ta gábas. (lehenagò *gábaz* emana zuen)
38. Il.: áitek, bére áitek errán tzió sémeai.
Ar.: áitá (honela, *k*-rik gabe) erran zekó... sémeai.
39. Il.: gizónek errán tzioté maztékiei.
Ar.: gizónak errán zekoté(n)... mázteai.
40. Il.: maztékiek ikúsi zuté gizónei, gizónak.
Ar.: mázteák ikùsi zuté gizonai.
41. Il.: zúre alába dá própíe.
Ar.: zuré... alabá, dá políta.
42. Il.: éztút og(i)ík.
Ar.: éztút ògiík.

43. Il.: gizón aundiéna dá Pédro.
Ar.: gizón aundiéna dá... Pédro.
44. Il.: gizón ónaí, main diót pézta bát.
Ar.: gizón ederrái pezt'át èmain dakót.
45. Il.: báguázi oiánera.
Ar.: oiánera guázi.
46. Il.: eztá gizónik eta maztékiek plázan.
Ar.: eztá gizónik ta mázteik eré, plázan.
47. Il.: nesáköak eta mutíköak yoán diré Zabáldíkera.
Ar.: mut(t)íkuak eta... nesákuak, juàn diré... Sautára (= *Saraguetara*, Artzibar bereko herrixka bat).
48. Il.: néri kuadràtzen (= atsegin) záide errí txikíe.
Ar.: néri gus... kuadràtzen zairá txíkia, érri txíkia.
49. Il.: Yoán eta Pédro eldú díre.
Ar.: Juán ta... Pédro, eldú dire.
50. Il.: eldú gerá gaúr eta yoáin gerá biér.
Ar.: éldu gará égu, ta juáin gará bíar.
51. Il.: áite eta sémëa gáizki daudé.
Ar.: áita ta sémea're... éri daudé.
52. Il.: Pédro erráten dú eta erráin du bétí.
Ar.: Pédro erràten dú ta... èrrain dú... bétí.
53. Il.: Inés zé póbrea eta bére anaiák abrátsak.
Ar.: Inés... zé póbrea, ta... anáëak... abrátsak.
54. Il.: in tzúte étxéá arríz eta ólaz.
Ar.: étxea in xuté(n)... arríköák ta... zulékuak.
55. Il.: tzakúrre, tzákurre dagó... áunkes.
Ar.: txakúrre, aunká(s) àitzen dá.
56. Il.: ník il nué gizón bat eta éz... ètziréte nerí kastígo mán, kastígoik mán.
Ar.: íl nué... gizón bát, ta... etzíráté... gáixki... gáixki ín.
57. Il.: gaúr étzará iñór.
Ar.: egú ez... étzará daus.
58. Il.: ník il biár dizút zúri, edo... ílen naiz.
Ar.: zé in biaut? íltze(n) zaitút edo...?; íl biar dizút, bertzénaz... zúk... illén dira...-zú.
59. Il.: zú nór zarén ník yákin biaut.
Ar.: ník yákin biáut, yá nór zarén.
60. Il.: iñórrek eztú, ètzaké ukétu, ézta erréieák.
Ar.: niók éztu... ukàtu biár, o ukátikó, eztá... erré(i)a ere.
61. Il.: ní néiz sortúe Ilúrdotzan.
Ar.: Arrítan... sortú nitze.
62. Il.: lurréko lána... neguén da txárre, o gáiztua.
Ar.: lurréko lána... negúan gáixtua da.

63. Il.: aúнке itén duená dá tzákurre.
Ar.: tzakúrra... aunká góí tzakúrreína dà.
64. Il.: arreglátu zúte; zaudé asárre, asárrian, eta... konpóndu zuté asárrea.
Ar.: konpóndu zuté; arrañátu.
65. Il.: etórtzen délaík; etórtzen déleik.
Ar.: elleátzen delaík.
66. Il.: énaiz yoáin zú... ín báituzú.
Ar.: enaíz juáin zéngatik zúk... èin baituzú?
67. Il.: néri emán diréte.
Ar.: emán diraté nerì.
68. Il.: ník main dizút azúri bet.
Ar.: ník main dizút... bildós bat.
69. Il.: zezénain adáarak díre lúziak.
Ar.: zezénein... adárrak, diré lúzeak.
70. Il.: altzí(d)etík, altzínétík ník banakié óri.
Ar.: lená(g)otik... banakié ník.
71. Il.: úrte bát osóik.
Ar.: úrte bát osóa.
72. Il.: urtéz úrte.
Ar.: urtétík urtéra.
73. Il.: (etorri de) amáin ikústera.
Ar.: amá e... ikústera (e)tòrri dá.
74. Il.: zapétak tórtzen zaizkíre zabál, pízke bát zabál.
Ar.: zapétak... ánitx zabál, dáuket.
75. Il.: máin dizút gauzé... gáuzeén bat.
Ar.: zerbáit ní(k) emàin dizút.
76. Il.: ágo géldik emén!
Ar.: záude géldiik!
77. Il.: íltzen náiz ótzak.
Ar.: otzák íltzen náiz.
78. Il.: náuzu geldítu yatéra? bàzkaltzéra?
Ar.: naúzu... geldítu, bazkáltzerá?
79. Il.: ástoak díre fiérrak.
Ar.: astóak diré fiárrak.
80. Il.: ezúrrek díre gogórrak.
Ar.: ezúrrek diré... gogórrak.
81. Il.: juan tzé bakárrik Zubríre.
Ar.: bakárrik juan txé (sic), Irúñera.
82. Il.: núndik atrátzen dúzu óri?
Ar.: núndik atratzéunk ori?
83. Il.: nóiz yakín zindué óri?
Ar.: nóiz yákin zindué ori?
84. Il.: etórri zeláik, etórri zelaík ínik, ínik zégo.
Ar.: tórri ordukó... ínik... zeó.
85. Il.: erriétik eraúntsi ziré zubí... zubiréño.
Ar.: érritík, jautsí ziré... zubíraño.

III

Eranskin gisa, alde batetik, gure lanerako materiala bilduz joan garen zenbait herritako testu libre batzu dakartzagu: testuek, geure ustez, hainbat argitasun eman dezakete ukitzen ari garen euskalki honen berezitasunei eta, batez ere, hementxe ikusi ditugun azentuazio-egiteei hurbiltzeko. Leku honetara iritsirik, bada, ez litzateke batere gaizki etorriko Mitxelenak behin, Erronkariko euskararen azentuazio-egiteez mintzatzean⁵, zioen hura: «El roncalés presenta un claro acento de intensidad que nos pareció tan marcado como el castellano. Si hay un acento fijo de palabra (o más exactamente de grupos de palabras) o si éste varía con el acento general de la frase, es cuestión en que de momento preferimos no entrar. Nuestro material, de todos modos, acaso no sea suficiente para decidirla definitivamente».

Eta aurrera jarraituz, zera gaineratzen zuen: «No nos compete tampoco examinar por qué ese acento —que muy probablemente se presenta tan marcado como en el Roncal en otras variedades navarras— no ha sido señalado hasta ahora. Bastará con recordar el prejuicio que ha reinado en general entre los investigadores vascos acerca de cuanto se apartara de la pronunciación corriente en Guipúzcoa, Vizcaya y Labort, que se atribuía, sin más diligencias, a 'influencia extraña'».

Hots, baldin egia bada euskalki batek, edozeinek, bere ezaugarriak badituela —oroitarazten dugu hemen, hari beretik jarraiki, erronkarieraz mintzatzean askotan aipatua izan den azentuazio «kolumnal» hura—, eskuarteaz dugun hau ez da, inolaz ere, salbuespena; ez bedi hartara pentsa erdal eraginaren marka, hitzetan batez ere, hain nabaria izatean —hegoalderantz jo ahala zartada haundiak hartu ditu euskarak mugakide duen gazteleraren aldetik, lan honen aurreko orrietako hitz-sorta luze samarretan aurkitzen diren mailegu ugariak ikusirik soma daitekeen bezala—; ez dadila pentsa, genioen, erdaratiko eragin haundia jasan izanik ere, euskalki honek zer aztertu eta zer sakondurik ez duenik. Guzti honek, bada, aztertze-lan egoki bat egitera bultzatzen gaituela dirudi, euskalki honekiko azentuazio-egiteez bakarrik ez baina, gainerako arazoez ere bai, ongi finkaturiko oinarri batzu ipintzen saiatzeko. Momentuz, alabaina, eta lan honen azpi-izenburuak aditza eman nahi duen bezala, gure oraingo honetan egite interesgarri honi hurbildu besterik ez dugu izan nahi —gaia, egia esan, ez da hain xamurra gainera— bide batez, hori bai, inoren aurrean aztertzen nahigarriak izan daitezkeen material batzu agertuz.

Eta azkenik —eranskinez ari gara berriz ere— lan hau mapa pare batez osatzen da; lehena, aski ezaguna bada ere, Bonaparte printzeak, Londresen, 1863. urtean argitara emanikoa dela esango dugu, hemen agertzen den zatia, noski, lan honetan ukitu den gaiarekin erlazionaturikoa izaki; zehaztasun haundiz taxutua, meritu haundikoa iruditzen zaigu beti. Bigarrena, berriz, azken hamar urteotan kurritu ditugun herrietako euskararen egoeraren gaur-gaurko informazioa ematen duena, Josu Tellabide adiskideari zor dio-gu, printzeak eginikoan oinarriturik badago ere.

5. JUAN JOSÉ BELOKI, JESÚS ELOSEGI eta PILAR SANSINENEA hirukotearekin batera argitara emaniko «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés» izenburuko artikuluan. Boletín de la RSVAP, Año IX – Cuaderno 4.º, San Sebastián, 1953.

Hona, bada, ondoren datozen goian aipatu testuak ⁶, azentuazio-egiteak aztertzeko aukera desberdin ugariak ematen dituztenak, zein herritan izan diren bilduak:

- | | |
|----------------------------|---|
| 1. Ihabar (Arakil) | Azpieuskalkia: «Ultrapamplonés»; hizkera: OLTZA. |
| 2. Beorburu (Txulapain) | Azpieuskalkia: «Ultrapamplonés»; hizkera: GULINA. |
| 3. Ziaurritz (Odieta) | Azpieuskalkia: «Cispamplonés»; hizkera: OLAIBAR. |
| 4. Inbuluzketa (Esteribar) | Azpieuskalkia: «Cispamplonés»; hizkera: ERRO. |
| 5. Urnitza (Erroibar) | Azpieuskalkia: «Cispamplonés»; hizkera: ERRO. |
| 6. Auritz | Azpieuskalkia: «Cispamplonés»; hizkera: AURITZ. |
| 7. Ilurdotz (Esteribar) | Azpieuskalkia: «Cispamplonés»; hizkera: ARTZE. |
| 8. Arrieta (Artzibar) | Azpieuskalkia: «Cispamplonés»; hizkera: ARTZE. |

IHABAR (Arakil)

Ostegun Sainduz

–Monúmentúk paátzen (t)zëén, an... aldáreak májöak paátzen (t)zëén, déna... oyál, txúriakín, esto... bueno! ta, ayék sújetatzéko, orrátxa, ta, eskàtzen zutén... mùt(t)jiko txikíek, eskòlakuák, karrakákín; badakizú ze dén karraká? karràkakín jotze zén ta... úskeras: «aingeruek gara, zerutik eldu gara, orratxaren bille ⁷, eztuénak eman náí, atàri gúziak autsi náí» ta, karrá-

6. «KOLDO MITXELENA, I Lehiaketa»ra, eranskin gisa, bidali izaniko testuak honuz gero argitaraturik daudenez –lehen aipatu EAELen (1990), hain zuzen ere–, bidezkoa iruditu zaigu orduko haiek ordezkaturiko dituzten beste batzu honera ekartzea.

Testuotan maiztasun aspergarritz isladatzen diren etenpuntuak horrela agertzeak badu bere zergatia: hots, lehen-lehenik errealitatea agerian ipini nahi du, informatzaile horietako batzuk, urte askotan mintzatu gabe egonagatik, benetako oztopo eta era askotako zalantzak erakutsi dituztelako. Beste arrazoi bat –eta hau lehenaren ondorioa litzateke–, etenaldi luze horiek azentuazio-egiteetan euki lezaketen islada izan liteke: hau da, informatzaileek erraztasun haundiz eta pausarik egin gabe hitzegin izan balute, baliteke orduan azentuak agertzen diren leku beretan ez agertzea. Zilegi bekigu, bada, azalpen luze xamar hau ematea, azentu-marka bat, agian, «silaba horretan» bai eta «beste horretan» ez, zergatik agertzen den hobeki adierazteko. Apunteetatik aterata lehen aurkeztu diren hitzak, bestalde, honako herrietan izan dira hartuak: Arakil: *Ihabar*, *Ekai* eta *Urritzola*; Guli(n)a: *Larunbe*; Txulapain: *Beorburu* eta *Usi*; Ezkabarte: *Anotz*; Odieta: *Anozibar*, *Ziaurritz*, *Erripa*, *Gendulain*, *Gelbentzu*; Olaibar: *Olaitz* eta *Osakain*; Esteribar: *Saigots*, *Agorreta*, *Inbuluzketa*, *Urdaitz*, *Osteritz*, *Zai*, *Errea* eta *Ilurdotz*; Erroibar: *Ardaitz*, *Loizu*, *Olondritz*, *Esnottz*, *Aintzioa*, *Ureta* eta *Aurizperri*; Artzibar: *Espotz*, *Arrieta* eta *Azparren*; eta *Auritz* eta *Orreaga* herrietan ere.

7. Honaino kantuz eman du, horregatik azenturik markatu ez izana.

karrá-karrá-karrá-karrá... jótze(n) zutén karràkakín, atári bakótxan. Guk, baákizu zé maten giñón? eltzé zar bát, el(t)ziák, àusten zeénian do... ez zuténian malú (?), guardatzén giñuzén... egún ortáko, ta mäten giñón... giñokéna! zár au, éltzé zar bat eta géo... màkil betián sartú, kínderrakín ta, ibiltze(n) zeén mutikuák e... itxés itxe. Ta géo, biltzén zuténea(n) úre... mònton bát, juàtzen (*sic*) zeén... béei gána mäten ziotén lekué, ta án, arriké... austén zittuten, béire; zé ilusioák! zé dibersioá!... orí zén, ángo... ángo kostúnbria. Ta, eztáki(t), eskútxas (?) bazínik, euskéras ba, kántun fránko biño oín eztakié akordatzén ⁸. Frailiak eakùsten zittutén!...

–*Eta zer beste esan duzu paratzen zutela? grada batzu...?*

–An... aldárëan, ólada-mayétan, grádak é paatík, oyálak án-da.

–*Hori, karrikan?*

–Ez, ez, èlizén, elizén, elizén; aldáre... txíki bét badá, ta... án paàtze(n) zutén ta géro... lúrriàn, kru(t)zífikoá, t'an éde, alfonbrákin t'edé... búrkoak e...-dérki jarriik eta... déna... í(t)xe bakótxak emáten zún kandeléroa bére belák, belá... izenik. Zénbait... óitamár béla bedái(k) bázozkien án, bí aldeta-tík; itxe gúzietatik ématen zutén, kàndeleroá, ta, denbòra gúzian án ixínik, kàndéléröa.

–*Isinik? pizturik?*

–Bai... con luz, encendidos los... candeleros. Ixí, ixiniñk; ixín... decíamos pa... pa encender, ixín. Y allí tenían, y dos... reclinatorios, bí reklinatório ta bí... bí «Hija de María» án, bi... èskiñetán... ordú-kuarto'át pàsten tzutén bakotxák, ta kanbiétzen tzéén... aldíxke. Ta án e... gauèsko amárrak ártio!: «fálta báí?», «Hijas de María» doik'é bázeen órduen!... oréin akáatu dé óri're, ta...

–*Baina prozesiorik ez zen egiten, ezta?*

–Prozésioik ez, étzen ez; prozésioik giñuén ittén...

BEORBURU (Txulapain)

Lisuntsiz (gazt. «saúco») eginiko tutuluak; liho-xehetze eta errokatzea.

–Kén...-tzen giñún, kèntze(n) giñuén... barréngó... mamíe erràten gin... déla. Ta géro, itten guñuén... makílle, óska batéki, ta géro, orí biñó e... bí zentímetro... mótzáo, ta ándik, an, múl(l)ue, edérki; táko'atzúk, mólluekí, ittén giñittún, ta arréki plást! lemízen etzuén tíroik... bótzen biño, géro, estútutzen délik, oré... edérki... bústí te... ittén (t)zirén táko'atzuk eta, táka! sartzét et ták! tíro'at. Úre, atrátzen (t)zélik, beís óre artú te, barrèn zeóla béiz! ta óla... áitze(n) giñen.

–*Lehen «estopa» esan duzu; nola erraten da hori?*

–Mul(l)úe, múllue. Orí, líguakí, iúttén zutén... neré gazté-denborán, Beorbúrun itten zutén liguáa... erái(n), ta géro, déna... zanpátu, déna... azíe déna kéndu, ta géro... garbá'at, garbá (b)atzúk izèten (t)zirén... olá, ta déna,

8. *nor-noriko* era, Sakanako herri askotan guztiz arrunta dena; hona, informatzaile honek emanik, orainaldiko singularra: *dakie* edo *dakee* / *zakeek* / *zakeen*, *dakizu* / *dakik* / *dakin*, *dakio* / *zakiok* / *zakion*, *dakin* edo *dakigu* / *zakiuk* / *zakiun*, *dakizte* eta *dakiote* / *zakiote* / *zakione*.

ittén zittutén pues... déna... ta, bárne(n), zuén déna gogór-gogorra, ta... zeátik, idúzkién, idúki, pixkoát e... ustéltzekó ta géro, edérki sekátu te... garbáki táka-táka-táka ta arréki at(r)éatzen zittún (!) mullúe. Ta geró, oré pues... baákizú, ob(e)renéan pues... itte(n) zittutén e... dènbór'artán txapínek eta... geienák sáldu itten zit(t)utén pues télak... ta ittéko. Ta itxán pues... maindériak eta... gúzie... itx(e)án; buéno, biño... arréki... itten zittuténak edérki... garbittú te ondórian, iín t'ondorián pues... itxé auni(t)zetán aiéki... guátzetán ta...

–*Eta garba (gazt. «agramadera»), zer zen?*

–Gárba? izéten zé pues... láu, láu ankáki iñek, eta bèrtze... bí, olá, óla, ba... orí zanpátzeko, ta íru, óla, góí... gottíköak, góiti, zabál, ta béiti miárre. Ta... béstzèak alrebés: béitti... zabála, ta... goéti meárre. Ártu, bi... eskútik eta: tak, tak, tak, tak... ta déna, kozkórre, baliotsuená, dená, lurrérra, ta géro, mul(l)úe, óri, puessss... óláa, parátze(n) zúten errókan, ta géro, arréki, pues ittén zittutén pues...

–*Garba, beraz, lihoa xehetzeko lanabes, tresna bat zen...*

–Xeéteko, bai... bai.

–*Eta ikusi duzu errokatzen?*

–Bai, nère amák... itté(n) zittué ta, èmengó... amàgiarrébak ére bai.

–*Eta nola errokatzen zen?*

–Pues... erroká, pues paátu zút, paátzen zitutén déнна... óla... buéltaka-buéltaka-buéltaká, ta geró, andík, tíre ta tíre, tíre... ta geró, ardátza, emén, buéltaka-buelteká(n), e... eskú...-ñéki, éskúe... eskùñekí pues... betí óla tirätzen ⁹, ta bertzèa, ardátzakí, pues emén, buélta eta buélta ta buélta, ya, aríe iñik, pues, buélta ta buélta, óla biltze zutén.

–*Eta gero, hari hori, nora joaten zen? non biltzen zen?*

–Pues...errátaizút! pues... aríe, emén, èskuñekí iñ, pixkuát betí... lístuekí te pixkuat... bustí te... emén, ya, ésku... eskuñekí, ya, aríe iñík atrátzen ze(n). Geró, buéltaka-bueltaká ardátza, bèrtzeakí, pues ardátz(e)an... buélta-buélta, géldetzen zén, oré.

–*Eta gero, handik?*

–Andík, geró, pues... ittié(n) zittutén óla... sáten dizút, pues, berraún grámo edo óla, edo... berréun te... o(g)éitamár grámo zittuéllá, olá izèin zittutén, ta orí, kéndu te, guardátu; ta géro, béis, arréki pues itten zittutén pues, baákizú, pues... itten zittutén... óri, txapínek eo... bákizu, «kal(t)zetínes» erráten diogú; (t)xpínek eta... olá.

ZIAURRITZ (Odieta)

Aingiru-iturrie

–Gúre gazté-denbóran... orái beñó fé geiágo zén. Bàdakizú? ezkútuko oiála zer dén? ezkútuko oiála? toállá? kàr(t)ze zutén, eriek, ta urák, uráki, garbítu edérki, toállaréki... sekátu; te toállá uzté(n) zutén... sesí betèán, or,

9. Zenbait testutan, lehenago aipatu ē eta ö gisako bokaleez gainera, ā batzu ere bai agertzen dira; ā horiek, noski, a eta e, bien arteko soinu bat adierazteko erabili ditugu.

barándille bezálaköá... apézak àrtzen zuén geró (?)... ospitálara emáteko, bai. Ta pùtzu'èt –ba... pùtzúko a(r)tán, ttikíe...– ta án botá(t)ze zituén, bátzuk... suéldo'át, bértze ()... iru pézta, bertze'át dúrua, ta áiek arrapátzen... apézak! ta... mèzak atrá. Oáñik badié dirue'pái an... putzúko artan, báí-bai... Aingíru-itúrrie záio ókeri; baité erdaráz ere: Aingíru-itúrrie erdaráz ere.

–*Eta apaizak bakarrik hartzen zuen dirua?*

–(*barre eginez*): Uré, atéra bíaute, apéz batén kontúe. Apez bát bazén emén... Ostízköa, Zizúrko sémëa. Ta, arrón(t) bróma... bromátsua zen; apéza óna zén, e? ta... yoàten (t)zén... Nagítze, Anóztí(k)... altzíntxáö, izíre. Te izíre yoán (t)zen, ta bekádak... ollítsue(k)! bakízu zer dién? ollítsúe? eztákizu zér den? «becada» záio erdaráz...

–*Eta euskaraz, ollóitsue?*

–Ollóitsue; ta... torrí zen láu-bo(r)tz... ollóitsuekí, torrí te etzuén tabákoik, etzuén tabákoik, ta... fumázaléa errápiätúe zén!... Tòrri zén pùtzu ortará, Aingíru-itúrriré, ta kóño! amábi suéldo, trés tzinkuenta. Kóño, artú, trés tzinkuenta putzúen ta... Anozíbererá torrí, tabáko erósi. Ta èz men tzún, átra, ez píkor bát, ta eztá sárnaik ez yáus ere átra. Ta, gezúrre zelá, ur óren kontué...! Ta bazén apéz bát émen, Kaskuén bazén apéz bat, arrúnt euskaldun, ta atzánaz (= *hatzamanaz* ?) gizónakí... tzakúr te katúe bezála. Bátek egíe zéla, bé(r)tzek gezúrre zéla(a)... (*eta esaten omen zuen*) jítoa déla, apéz ói, Ortíz(k)öa. Jíto géienè(k)... éz, komóntzen, (t)sékule; é'konpóndiko ere, ói jíto báite. Néi er(r)aten zién, apézak...

–*Eta zertarako zen ona iturriko ur hura?*

–Píkorrák, ta sárna...!

–*Eta jende aunitz etortzen zen?*

–Sanjuántan? lenáo áunitz! Nére áiten denborán, nére áite... mutílle zeláik, emén egíten (?) bazén, mutíl... áundi bet; silléroa erràten zióten, silléroa, ta indér góráko gizóna. Ta San Juan bezpéran, yoán... Aingéru-itúrriré, ta tòrtzen bai(t)zién yénde áundie, baztár guzietaík...! musíke-te báí, etòrtzen (t)zirén, gitárrak eta tanbórrak eta... diabrú oi; ta osàtu ín zuten, tzikirétu ín zuten... silléroa. Andí(k)... il men tzén ore.

–*Bai? eta zergatik?*

–Ju! beá'takité! zé pastu zen án! asárratu ín zién, asarrátu ín zién seguráménte, ta...

INBULUZKETA (Esteribar)

1) Auzo-herrietako euskara-moetaz

–*Esaingo euskara entzun du horrek?*

–Ez, ez... ez.

–*Ez? sekula ez? gaztetan ere ez?*

–Ez. Ézta, ézta.

–*Inoiz ez da mintzatu edo... solas egin, Esaingo jendearekin?*

–Isángo... Etsángo jéndeikín ez, éz gara, eméndi... eméndi béiti! te... ór aldápa áundie báite! magál aundie báite or!

–*Eta Usetxi eta Leranozko jendearekin...?*

–Usétxikuék, oiék, eméndik pásten tziré, ta oiékin, bėti... obéki tòrtzen giné.

–*Eta euskaraz ongi, haiekin?*

–Bai, bai...

–*Hemengoa bezala, ezta?*

–Eméngua bezála, eméndi pásten tzire; orái, Zúbiriré joáten dirén bezála, eméndi topàtzen tziré... bídia.

–*Eta haien euskara eta hemengoa berdina, iguala izanzen zen...*

–Bérdina, bérdina... bérdina.

2) Ihauteriak

–*Ihauteriak, karnabalak, ezagutu ditu horrek hemen?*

–Zer, zé iten diré emen? zé karnabálak íten tzire? meréndue te íten tzuté, itxetán, mutílek eta... bildú... láu... urdéi-pusk'ét o arrótzia o alá ta, juán tabárnará ta yán ta akábo!

–*Arraultzeak eta urdai-puska horiek nondik ateratzen zituzten?*

–Ítxian, ítxian... itxéz itxé tòrtzen tziré, mutílek... ta... (*errezitatzen omen zuten*): «Iraute koxkóte, tzérri tzár bat il dúte, ártaiak ezipádiguté man náí, Jangóikoak kastigétiko dazkóte», ya me acuerdo de eso, que solían decir...

–*Eta nola joaten ziren beztiturik?*

–Ah...! beztíturi(k)! eje! érdi buluzík! beztítúri(k)? be! ígual, ígual... ta, matén gintué... urdéi-pusk'ét, txistór-puxk'ét... oláta(k), oláta it(t)en gindúen ordúen... opíllei(n)dakó... ógie, baia ógie, ta, dozéna-erdi bét arrótze o alá, t'an dénak bildú te juán tabárnará ta yán. Ézpazuté akàbatzén... lemíxiko egunián, pues, miramónian, òtrabezián, ta akábo! Orái... orái ja ére!

3) Olatak direla-ta

–*Eta olata hori, zer zen?*

–Oláta? béide, iten (t)zíre, cuando... itén ginduélaik ogíe, itén tziré opíl be(t)zúk, tzakúrrein... búrue bezála, alá txikí-txikí betzuk, oláxe, oré oláta; ta egunéro-egunéro, méza izáten gindúen emén, te apézai... martzékiek emàten gindúen, e(g)únero ógie; ta opíl(l)ek, o... oláta óiek, apézendáko, iten gíndue, egúnnero, mezára juáten gineláik, oláta apéz(e)indako.

4) Misioak

–*Misioneak izan dira hemen?*

–() bai... Urdéizti, bai; oráñik, orái oróitzen naiz. Mísiotán... () ba

maztéki zar bátek ùtzi men tzué dírué, matéko mísioak... dirúe... ebázi ematen tzuén bezála. Ta, órduen, dirú pixkét el zeláik, kartzén tzuté fraílle on bát, Urdeitzé ta... erráten zuté: «eldú'en astián... mísioak». Joain giné... al tzàikiená joáten tzé; joatén tze.

–*Eta ze fraileak izaten ziren? kaputxinoak edo?*

–Kapùtxinöák.

–*Eta zer, «fuerte» predikatzen zuten?*

–Duík'abé! (irriz)

–*Haur eta gazte guztiak joanen ziren orduan...*

–Bái ba; gúk (!) aurrétará joàin giné... goizetán ta, gúri, zé errain tziguté gúri?

–*Beraz, Urda(n)iztik etortzen ziren?*

–Bái, bái...

–*Eta apezak, nongoak izaten ziren? Iruñekoak edo horrela?*

–Bái, a... oiék, kanbiètzen tziré bai; nik zénbat apéz... záutu tút ya érrí óntan? y'aúnitz!

URNITZA (Erroibar)

Kisu-labeak

–Íten tzé... zúlöa... áundiá... oiánean. Ta geró, beittiégotík, ìten tzuté besté zulo át arrén...-gána, zúlo arréngana, ta andík, ándik mäten tzioté... súde. Ta, paatzén tzuté... árriz, déna árrie, arrí... áunitz! An... egún eta... gabáz ta egúnez, bétí... súde, súek in bear tzuté, ègon bear tzuté, a... ákatu értio. Geó... èiten tzeléi(k)... kísue, itén tzeläi(k)...

–*Baina kisua egiteko zer paratu, zer beste egin behar zen?*

–Déus batez. Arríe, arríe aékin; arríe paatú te... aiékin, arriékin.

–*Eta ze harri-moeta zen? nondik ekartzen zen?*

–Zúrie. Larráingöan-ta báda; Lói(t)zun, Lóizun... Ardáitzen... báda. Biltzen gindué, zúlöán, gòitibèitiréño, déna, ta... ándi, andí(k) mäten tzióte pues... súde, beítiko... zúlotik. Ta, ya... góí, áundie iten tzé, ul(t)zúlöa (?), ta géo... géro, oztúe, oztúe... óztu ondoán, orduén kentz, kéndu... arriék...

–*Ta ordurako eginik zegoen...*

–Bái, bái.

–*Eta asko berotu behar zen? egosi edo?*

–Bái, bái, bái, bái... egósi «del todo»; egóstén tze bai. Arrí ebék, paatzén batzuté suén, tíroa tirètzen tzué. Árriek, bai, eméngöak, baña oék ez, ba... arríe zúrie da.

–*Eta hemengoa nola erran duzu dela? hemengo harria?*

–Eméngo arríe, eméngöa ézta oná... ez, ez.

–*Beraz, zuloa harriez bete aitzin, azpitik, bertarainoko beste bide bat egin behar zen...*

–Béste zúlo at. Emén... eméndik éin béit(t)i, ta géro, eméndik, béste zúlo át árara, súde máteko; ta án... paratzén (t)zuté, arríez, déнна arriéz goitiréño, parátzen zute.

–*Noraino?*

–Eu! góitixegó, lurrétik góitixegó.

–*Metro bat edo...?*

–Geágo, bai, bai... bí metró, iguál... bai.

–*Eta kisua egina zegoelarik, sua itzali eta...*

–Etzué... etzé itzéliko, etzuté utzi beár itzeléra ¹⁰. Zázpi egún... o eztá-ki (t) zénbat ¹¹. Egún tä gábaz, egúnez ta gábaz, bėti, in... án égon bear gindue. Úriz, Úri(t)z... badakizú non dén Úriz? án iten (t)zuté áuni(t)z, án bai. Géro, saltzéra atràt(z)en... tzíre...

–*Eta zertan erabiltzen zen, gero, kisua?*

–Paréta itén!

–*Zuritzeko eta horrela...*

–Bai, ta zurítzeko-ta. Ta... kisúe, xúries até(r)atzentzen (!) tzé or.

AURITZ

Orreagako prozesionea

–Ártze, Bálle de Artzé eta... Oróz-Betélú. Nóla tòrtzen diré? lemíxi-ko... bueno, amàrretrà, amàrretán edo olá, eta... lemíxikó... mozórroak, dénak kruzekí, baño aú niz é? áuni(t)z! iguál pasá... egún o, bí egún iguál, bíkorak, dénak. Ta geró... kruzeák, èrriköák, erríko gúziekí(n), gòizetík, kàrtzen duté... krüzëák, eta geró... Áyuntamentúak, eta geró pues... géro apezák eta... eta... èmazteák eta déna. Ta geró, oyék e... kèndu... tòrtzen diré... ahora, oráí éztakit, akasóoo... àutoán, áutoan, eta géro... ór Bentán, lemíxi, an...

–*Arrobi edo?*

–Ez, Arróbí ez, Arróbi éz du, Bentáköa, onátago, eta án formátzen diré, denák, prozèsionea. Ta oráí eta... pàsten diré... mozórroak e... lètaniá errè-tzatzén, eta... bertzéak pues, érrosarioá edo kantúz; ta geró... e... Orreagán pues, mauté (= *ba(d)ute*)... ála, deskànsó bát, eta... kònfesatzéko ta dèn(e)-tán, eta geró, améiketán, méza. Eta geró pues, ba(t)zúk e... kàrtzen duté... bazkária, bertzeák pues gáten diré ostàturá, eta... géro, lauetán, lauetán berríz kantátzen duté sálbea, ník usté, porke ník éztakit, eztút béin ere... egún atrátzen, e? Eta... ya, pàsten diré oék, lénago bezála, góizian bezála, emendík, eta... ór Bentán, dénak... gáten diré bere... erríak (!), érri otara.

–*Eta beren herrietara itzultzean, eramaten dute tunika?*

–Zer? mozórroak? bai, báí-bai... dénak e... béltxa, túnika béltxa.

10. Esaldi hau ez da oso garbi aditzen; ez da, beraz, oso segurua.

11. Azken hitz hau *–zenbat*, alegia– ez da ere oso segurua.

–*Eta handik, herri haietatik, oinez etortzen dira?*

–Bai, bai-bai, áuniz! Geró... geró... bádá... Aèzköaköá, Aezköáköa, eta aiék, tòrtzen diré alkáteak... bére... arrópa eo, léna(g)oko arropá, óla, babé-roaikín ta... pollítak diré eta, txapélak eré... bére... () ta geró... neskatöák pues... de... alkaldesá eta... badiré eré, bauté bere arropá, de esas de ... de aezkoanas! eta batzúk, bätzuk tòrtzen diré... óñez, oñéz eta... zapétaik ga, zapáterik gabe, ortótsik.

–*Artzibartarrak ere ortutsik etortzen dira?*

–Ez! an, ortik ez, nik úste éz, e? bañoó... Aezkoátik bai.

–*Eta kantuz eta, pasatzen dira?*

–A! báí-bai, déna! báí-bai. Ta géro, kártze... e... denbóra óna balin badá pues kártzen duté estandárteak eta, baño, itén badu gáuz óre... gaixtóa pues... báte, kántuz (), bakarrík, kántuz bakarrík.

–*Eta inoiz aditu al diezu euskarazko kanturik? denbora batez behar bada bai, gaztetxo zinelarik edo...*

–Oái ez; (orduan) akáso. Orái ez, orái éztute kantátzen... uskáraz.

–*Eta ez duzu ezagutu edo izan estanparen bat, Orreagako Amabir-jinarena, euskarazko salbearekin?*

–Ez.

–*Hor, Mezkirizko gailur horretan, bada lauza bat, eta zera paratzen du: «Emen erraten da salve bat Orreagako Andredena Mariari» Pollita dago, e?*

–Bai, bai. Betí... betí lóreki. Báí-bai... betí.

ILURDOTZ (Esteribar)

Sanferminak 1913. urte inguruan

–Ni... bànitué... emezórtzi urté, gut(t)í-gorabéra, eta... nére... néri... ni, bí o íru(r)... laúnekín, úrte batián, tórri nitzé Iruñera ¹², óñes! bíde guzién óñes!

–*Zenbat denborako bidea? bi ordu edo?*

–Bí ordú eta... èta érdi, bigórdu t'erdí, gorábera bát; eta... Iruñera ellegátu, Iruñera tórri... ellegátu, Iruñera ellegátu... (*kosta egiten zaio aditz-laguntzailea ematea*) Iruñera tórri... tórri ginelaík, jústu-justú... jústo-jústo... erráten gindué... (*entzierroagatik, antza*) «tóroak ikústera!», goizéko tóroak ekústera.

–*Eta laster egitera ere bai?*

12. Elkarrizketa hau Iruñean izan genuenez *torri nitze* erabili zuen, *joan* edo *yoan nitze* erabili ordez.

–Ez! gu, gu, erriköák, dénak (*hesietan, nonbait*), an, ikústera! Eta géro, akàbatzen zeláik, ya... tóroak ya... sártzen... desaparecían, pues afuera! ta ordúen, ordúen, kanpóra, gú kanpóra, bértze... yéndeaeakín. Èta... kárríkera, karriken buélta ematera, máten... Iruñé... gúzie, Irùñe gúzie... án, ikústen. Ta... ya, yoán giné... almórtzatzèra!

–*Zein tabernatarata?*

–Karrike... Estafétan.

–*Ze izena zuen?*

–Eztákit; no sé, el nombre no sé. Énaiz oroitzén, oràitzén. Zé... Estafétan... azkén etxétan, karríkà... kárriké o... azkén etxétan. Eta... géro... bah, buéltaká... kàrriketán, zèrbait ikústen, plázan, Pláza Castilloan, sóñe (*sic*) píxko bát, ta... olá pàsten ginué... pàsten ginué... góize guzie!... àmabietáko o... àmietaráño o... oròn bateráño, buéltaka an, Irúñen... nekátzen!, pero... ordúen, gatzé(an)... baigitzén, gú gáztia... como éramos jóvenes, no nos cansábamos de andar ni nada de eso... éz giñe nekátzen ¹³!

–*Eta oron batean zer egin zenuten?*

–Berri(t)z! berriz bazkáltzéra!

–*Nora?*

–Lekú bérera.

–*Ongi bazkaldu zenuten?*

–Un poco de aperitivo, aperitibo píxko bát, eta géro... píxko bát, árdopíxko bát, eta géro... platéra, platéra... pláter aundié, umérri-kuarto bát, erréa, eta... kontént gú. Geró, póstre píxko'át, sagár eo... albaricoques o no sé qué... y... nada más!

–*Eta zenbat balio zuen horrek orduan?*

–Oh! orduán... mérke zé, déna; pézta... pézta... bó(r)tz suéldo! ¡qué cantidad, e?, una veinticinco...

–*Sueldoa zen geroko erreala, ezta? veinticinco céntimos...*

–No; el «suelo», el «suelo» me parece que es vasco: suéldo bát.

–*Baina hori da veinticinco céntimos...*

–Sí; me parece... el real, real de antes es, es... propio de Castilla. Bueno, en tal caso es igual.

–*Eta gero, bazkaldu eta gero, zer egin zenuten?*

–Bah! berritz... plàzará! An... yarrí te... sóño, sóñue... aitzén, eta... ikústen! olá pàsten ginué... egúne!

–*Eta zezen-plazara joan zineten?*

–Ez, éz gine juán! gu... yo... no recuerdo haber ido nunca.

–*Eta egun berean itzuli zineten herrira?*

–Sí, para... pa las nueve ya estábamos, en el pueblo.

13. Nik lagundurik eman zuen giñe hori, berez, gehienetan, giñe erabiltzen bazuen ere.

–*Nondik joan zineten? zein bidetatik?*

–Eméndik, Irúñetik, yoáten giné... bueltán, erríre, eméndik... Billé... Billába, Billébara. ¿Cómo se llama? ¿Billébará?, Billébatík Uértera; Uértetik... Uértetik Zabàldikéra; Zabaldíketik... Irótza, bèrtze errí bàt; Iróztetik Antxorítze, que está allí... más alante; Antxoríztik Ilurdótza. Y se acabó. Antxorítze, ugéldia pasá, pástu eta... Ilúrdotza.

–*Eta Gaztelu Plazan ez zen, orduan, Café Suizo izeneko bat?*

–Ya se nombraba, nonbrátzen tzé. Ní e... béñ ere juán, éz nítzen éz, béñ ere juan.

–*Orduan, egun bakar bat pasatzera etorri zineten, ezta?*

–Egún bet; bèrtze egunéan, lanéra!

–*Orduko Iruñea aunitzez txikiagoa izanen zen...*

–Oh! era... ttípie! orái... láu aldís, láu aldíz ¹⁴ aundiégo orái!

–*Eta zein aldetatik sartu zineten Iruñean?*

–Enáiz oróitzen óndo ¹⁵ baño... nére... ustéz, sártu ginén Irúñ(e)an... (*Beloso aldapatik*). Guk, óri... ín gindué, óla. Bértze... bèrtze xènde bát, tortzén tziré(n)... Burlétatik, Madàlená, eta... sartzéko Irúñen, portál... Frántzi, Frántzieko portália, pórtaletik.

ARRIETA (Artzibar)

1.) Oihan aldeko pasadizuak

–Aldí batés, Saraguétakó... péña aundi aetán... an, almòrztatzén ai giná, illé batekin ¹⁶. Bútre... bat gáitza, pastu zé(n); èrran néko láunai: «biarra torko dá, kústera yá... zé pàsten dá emen». Eskopéta... eskuán ta, jóño!, artú xatóá, aí ze edáten, nón ikústen... jóño! ártu eskopetá ta... zza! bálas, bálákin; ta, lurréra, áise!...

–*Bala ez zen izanen; perdigoia...*

–Kartúttxoan! bála; àrrekín... bótá ta. eróri zé... árri bát bezála: rrruuuun! Ba, artsáldëan, méndi ardán ¹⁷... ni, bueltá(n), «guázen yá... ílik dagó edo, bítxo goi». Juan giná ta, ezpél batëán, búrus béitë sartúi(k), íli(k); oláxe, sartú balá ta, ber(t)zé aldera(r)a, pástuik. Aláxeko lépöa (*ukondotik esku-punturainokoa, metro erdikoa edo, omen*) bázue(n), lúzea! Ta... eskópetá, aláxék, olaxéko eskópeta lúzea; arék... parátu lúrrëán, ta... buitréa... gàñeán, oañó(n)... bèrtze púska't yágo, oáño, lúze... jo! gái(t)za! oláxeko... luzétasúna zué, óngi edátuik! Jo! errán... bueno, láuna erran (t)zirá –ellé bat–: «emán bear dugú... Esnótza!» «Jóño...! áu Esnótza nóla eman biár dugu? errégu bát gári baño písu ¹⁸ iagó badu ónek!» . «E! máin du(g)u, máin dugu». «Bueno, bueno, ya... artú ta... ya, nóra emáteunken!» Ta, beála útzi

14. *Aldis/aldiz...* s eta z, bien bitartekoa dirudi, ez guztiz finkatua.

15. *Ondo* hau, itxuraz, informatzaileak bere zahartzaroan Urnietako salesianotan urte pare bat pasa izanaren ondorioa dugu, haurtzarotik mintzatu gabeko eta ia-ia ahantzirik bere euskararen berezko *ongi* baten kaltetan.

16. (*i*)loba; gaztel. «sobrino», alegia.

17. (*h*)artan da, noski.

18. *pistu* aditzen dela dirudi.

zuen «oi, oi! estáike emán!, pìsu gáitza!». Coño, pero... nóla pástu zén bála! álde batetik bertzéra, ño! Sautará (= *Saraguetara*)... sautsí, ta... karretéran parátu lùze-luzéa, ta án deségin nue. Geró, gú etxé alderá... éldu ginelaik, Sautakó... íru'do láu gizón, ellégatu ziré án ta: «Jooo! zé púskaaa! ùrdekéria onék (!) nók... ekárrí dú onára? eta gú íxil-ixilá (*farrez*). Artú ta... maldáin ertéra bóta zuztén.

2) Ikazkin bati gertatua


–Aldí batés gizón bát, oiánean ai (t)zé... sugárri itén, ikátz itéko. Ta, pástu zé or, denbóra ortóska ta eúri!... an... arrí aundí batén... peán, kuéba gaitzá badá... ník badakít non dágo, kuéba oi. Án sartú ta bealá... coño! kásia bateán, kásiá... bi... txakúrkumeak, garén ustés txakúrkúmèak ziré. Jóño! artú... zakú bateán sartú ta... e(t)xéra. Juan zén ta... urbíla... bueno, bére etxéa... urbíl, gizelái(k) (!), «aitúzie! atózte, atózte! bí txakurkúmiak karri tút, zéin ederrak! gizén-gizénak duú!». Gizónak jua ziré, «nón arrápatu uk? «Ántxeko kuébo (*sic*) ártán». «Jóño!, ya-ya, ikusí!... ói-oi-oi-oi...! nón-dik eskápatu zará!, otsókumiak diré o(i)ek!». «Zér ba? éz-ez». «Bái-bai, íltzen al túk ta... or(t)xé or, nónbáit(e). Tòrtzen badá ótsoá... je-je! ór kusíko túk... zé lának izéin dukén!» Gizóna... ségidoán, bí... txakúrku (*zuzentzera doa*), otsókumeak il éta, án barrátzean (...) án gelditu zíren! Errá omen zekòte: «Biarrík eztá... ótsoa... urbíldu; orduén izéin zindué lánea(k)... o lának». «Jóño! nóndik eskápatu naiz...!». «Bai, biarrí(k) eskápatu áiz!».

INFORMATZAILE GARRANTZITSUENEN ZERRENDA


izen-abizenak	non eta noiz jaioa		testua noiz
IRURZUN IHOLDI, Agustina	Ihabar	1908?	
HUARTE ARRARAS, Micaela	Ihabar	1898	87.10.22
ETXARREN OTAMENDI, Juan Bta.	Urritzola	1900	
BARAIBAR ERBITI, Gregoria	Larunbe	1912	
GARBIZU ARANGUREN, Esteban	Beorburu	1911	83.07.13
AGINAGA AZKARATE, Urbana	Usi	1890	
ZENOZ ARZE, Celedonia	Anotz	1909	
LARRAIA ETXAIDE, Ignacio	Ziaurritz	1900	86.07.15
MAKIRRIAIN ALZUZA, José M. ^a	Olaitz	1888	
EGOZKUE GOÑI, Apolonia	Inbuluzketa	1895	81.05.09
BEAUMONT OROZ, Francisco	Urnitzza	1901	85.09.04
GARRUES GOÑI, Joaquín	Ilurdotz	1895	83.06.04
ZAZPE GARDE, Manuel	Espotz	1905	{ 82.08.07 82.12.11
ETXAMENDI LARREA, Saturnino	Arrieta	1901	
BIZKAI ESKABEL, Gregoria	Azparren	1901	
IRIGARAI ERREA, Margarita	Auritz	1908	89.12.21

Donostian, 1991.eko martxoan berrikusi
eta egokitua

K. A.



■ Hegoaldeko Goi-Nafarrera 1980.ean. Puntuz betoriko gunek oinunkkia hiltzaur dagoen eremuak erakusten ditu
 ■ Koadroetako datuak eman dituzten herririk. (mapa: Joan Tellabide)



Lan honetako II zatian ukitu diren Elkano,
Ilurdotz eta Arrieta herrien kokapena, Na-
farroako airi-uruzarenaz baina.

Mapa: Louis-Lucien Bonaparte, Londres, 1663.

LABURPENA

Aurreko orrietan Errenteriako Udalak bertako seme ospetsua izan zen Koldo Mitxelena omendu nahiz 1989. urtean aldarrikatu zuen Lehiaketara bidalariko lan bat aurkezten da, zertxobait ukiturik. Mitxelenak berak aldizkari honetan (Fontes 23, 1976) argitaratu emaniko «Acentuación altonavarra» izeneko artikulua izan zen honen eragilea, hartan biltzen zen hainbat material orain, azken hamarkada honetan (1980-90), Hegoaldeko Goi-Nafarrerari geratzen zaion esparru murriztuko hegoaldeeneko muga bildu ahal izan dugun informazioa gehitu zaiolarik. Bide batez lan hartako pasarte batzu komentatu ditugu, nahiz oraingo honen helburua azentuazio-egiteekiko zenbait material adituen esku ipintzea izan den.

RESUMEN

En las páginas anteriores se presenta un trabajo remitido a concurso convocado el año 1989 por el Ayuntamiento de Rentería en memoria del que fuera eminente filólogo y asiduo colaborador de esta revista Koldo Mitxelena, hijo de la citada villa. Fue precisamente un artículo suyo («Acentuación altonavarra», Fontes 23, 1976) el que motivó el presente, habiéndose además complementado el material en aquél empleado por otro que, en esta última década (1980-90) y en el límite meridional del ya muy debilitado dialecto Altonavarro Meridional, hemos podido recoger. También hemos comentado algunos aspectos de aquel trabajo, aunque el fin de éste sea, sobre todo, el poner a disposición de los posibles interesados algún material relacionado con los hechos de acentuación.

RESUME

Les pages qui précèdent sont un travail présenté à un concours convoqué en 1989 par la Municipalité de Rentería en souvenir de Koldo Mitxelena, enfant de cette ville, éminent philologue et collaborateur assidu de cette revue. C'est justement l'un de ses articles («Acentuación altonavarra», Fontes 23, 1976) qui est à l'origine de celui-ci, le matériel alors employé ayant d'autre part été complété par celui que nous avons pu recueillir lors de la dernière décennie (1980-90) à la limite méridionale du dialecte de Haute Navarre Méridional, déjà très affaibli. Nous avons également commenté certains aspects de cette étude, bien que notre but ait été surtout de mettre à la disposition des personnes intéressées un matériel ayant trait à l'accentuation.

SUMMARY

The work above was sent to a contest organized by the Town Hall of Rentería in memory of Koldo Mitxelena, son of the town and regular contributor of this review. It was in fact one of his articles («Acentuación altonavarra», Fontes 23, 1976) that motivated the present work. We have complemented the materials of his article with some data of the South High Navarrese dialect collected during the decade 1980-1990. We have also commented on some of the aspects of his work although the main purpose of the article is to provide anybody interested in stress-patterns with some materials.

